

# TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria


1999ko garagarrila - 28. zenbakia

## SAN JOAN SUA, SAN JOAN EGUNA

**BAKIO BIAK BAT EGIN ZIRANEKOA**


**UDATEA ETA OSASUNA**

**ALKARRIZKETEA**



**JAVIER BENGOA**





# BOLIBAR

## Jatetxea

Benta Alde, 180  
 Tfnoak.: 94 619 4141  
 94 619 30 00  
 48130 BAKIO



# EROSLE


*Etorkizuna!*

Bakio bidea, 50  
 Tfnoa.: 94 619 49 00  
 48130 BAKIO

# ASKADA

## KAFETEGIA

Benta Alde, 70  
 Tfnoa. 94 619 4006  
 48130 BAKIO



# ARIMUNE

## OSTATUA

Benta Alde, 95  
 Tfnoa.: 94 619 4022  
 48130 BAKIO



# GAZTELU-BEGI

## JATETXEA - OSTATUA

MAKAILOA - ATUNA - ITSASKIAK

San Pelaio Alde, 86  
 Tfnoa.: 94 619 4924  
 48130 BAKIO

## BERBAURREA

Urtaro argitsu honegaz batera udal agintaritzaren barria gogotsu hasi da beharrez gure herrian. Betebehar asko eta era askotakoak daukez datozan lau urteotarako. Bakiotarrek, euron aldetik, itxaropen handia imini dabe agintari barriongan. Hurrengo lau urteotan herria aurrera eroan ez eze, egin diran gauzok ondo errotu eta sendotu beharra be badago-eta, berbarako, **Herri Nortasuna**. Bakiok, etorkizunean be, Bakiok izaten jarraitu daian.

Udatiarrek eurok be, aukerarik ezin hobea dauke Bakiok bizi-bizirik dauan Herri Nortasun horretaz gozatu eta jaubetu ahal izateko. Horixe da, izan be, eurei eskaini geinkiezanen arteko pitxirik baliotsuena. Betoz guregaine, bada! Ondo be ondo esango deutsegu, horixe baietz!

## TXIRRITXOLA

## TXIRRITXOLA-28

1999ko garagarria (hiruhilabetekaria)

## ARGITARATZAILEA

Bakioko Euskera Batzordea

## ZUZENBIDEA

Bakioko Kultura Etxea

Urkizaurralde, 28

48130 BAKIO

Tfno.-zkia.: 94 619 40 01 / 619 33 69

Fax-zkia.: 94 619 31 18

## ALE KOPURUA:

850 ale

## LAGUNTZAILEA

Bakioko Udala

## IRARKOLEA

Gráficas Gaubeka

Tfno.-zkia.: 94 625 02 74

Fax-zkia.: 94 625 52 54

48300 GERNIKA-LUMO

## TXIRRITXOLA

Bakioko Euskera Batzordeak egindako aldizkaria



BAKIOKO UDALAK  
diruz lagundutako aldizkaria

## GAIA ZER-NON ORRIALDEA

Aurrealdea: Gaztelugatxe San Pelaiotik .....	1
Iragarkiak .....	2
Agurra .....	3
Berbetan: Javier Bengoa herriko arkitektoa .....	4
Eritxia-iragarkiak .....	6
Zer deritoxoz?: Miss REFF lehiaketea .....	7
Zer barri?:	
- Herri Barriak .....	8
- Bagileko hauteskundeak Bakiok .....	10
- Kontuz abiadeagaz! .....	10
- GURE ETXEAko alkartearen ekintzak .....	10
- Udal barria .....	11
- Euskal selekzioen alde .....	11
- Euskadiko Pelota Txapelketako finala .....	12
- Bakiok REFF pro AM 99 .....	12
- Bakiok berbarik berba liburua .....	13
- GAZTEA aldizkaria .....	13
- Bertso afaria udan .....	13
- Nazinoarteko Folklore Jaialdia .....	13
- Azkenengo erakusketak .....	14
- Aurtongo udako kultura egitaraua .....	14
- Herriko ekanduak 1 .....	14
- XIII. Musika Astea .....	15
- Kaleko II. Pintura Lehiaketea .....	15
- EGA eta sukaldaritzaren ikastaroa .....	16
- Udaleku edegia euskeraz .....	16
- San Joan Dolozak, jaietako egitaraua .....	16
- Eskolako ikasturtearen amaiera .....	17
Argazki erreportaia: San Joan Sua eta San Joan Eguna .....	18
Gai berezia: Bakiok biak bat egin ziranekoa .....	20
San Pelaiotik Eguna 99 .....	21
Herriko baserriak: IBARRA .....	22
Gai berezia: Udatea eta Osasuna .....	23
Herriko ekanduak 2 .....	23
Zuhur ibili .....	24
Zaharrak barri .....	25
Talde txokoa:	
- ALAITASUNA gazte alkartzeketa .....	26
- Eskolako Gurasoen Alkatea .....	26
- ITXAS-ALDE .....	26
- Bakioko Abesbatza .....	26
Birgarroa .....	27
Euskera: Bakioko euskera-6 .....	28
Kultur leihoa:	
- Herriko ekanduak 3 .....	30
- Eritxi kulturala .....	30
- Aurtongo pastoralak .....	30
- Iragarkia .....	30
- Ipuina eta olerkia .....	31
- Bakioko liburutegiaren txokoa .....	31
- Noingo burrukea eta olerkia .....	32
Danetariak:	
- Datozanak .....	33
- Barregaiak .....	33
- Badaezpadako jakingarriak .....	33
- Ezetz jakin! .....	34
Iragarkiak .....	35
Atzera begira .....	36

*TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitako esanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.*





# Herriko Arkitektoagaz berbetan

**Bakioko Udalak une honetan herriko arau subsidiarioak barriztetan dihardu. Hori dala eta, oso une egokia begitandu jaku Bakiok urigintzaren inguruan daukazan arazo, erronka, itxura eta abarren inguruan berba egiteko Javier Bengoa «Mungi» udal arkitektoagaz egotea.**

**TX: Bakiok ingurune zoragarria eukita be, argi dago, batez be, hareatza ondoko gunea apur bat laskituta dagoana. Badago egoera hori konpontzerik edo leuntzerik?**

**Javier Bengoa:** Egia esan, ez. Orain dala 30 urte, gitxi gorabehera, egindakoa eginda dago eta ez dago ezelan be konpontzerik. Jakina, administrazioak hori aldatzeko diru piloa eukiz gero —eta Ameriketako horrelako esperientzia batzuk egon dira—, etxeetako jaubei ordaindu edo diru kopuru zehatza emon ahal izango leuskie beste etxetu bat egiteko, beste leku baten, eta gune horretako etxeak bota. Baina, jakina, administrazioak bide hori jorrazteko behar beste diru ez daukan lez, proiektu hori bideraezina da. Beraz, eginda dagoana eginda dago eta ez dago aldatzerik. Ganera, nahiz eta beste etxebizitza bat emoteko aukera egon, Toloñon 10. pisan dagoan pertsona bateri ezin deutozu horrelakorik planteatu, ze hortxe dago hareatzaren ganean eta, jakina, ikuspegi hori barrutik kanpora oso polita da, kanpotik barrura guztiz motza izan arren. Orduan, aurrerantzean ez da horrelakorik gehiago egin behar eta kitto. Ganera, gaur egunean, horrelako gauzak gehiago kontrolatzen dira herri-tarrek euren ingurunea hobeto jagoten dabelako eta beste arau mota batzuk dagozalako. Beraz, hareatza inguruko gune hori apaintzeko, ba, orain egin dana egin behar da: itsas ibiltokia eta antzeko gauzak, akaso kirol portua be... Baina, kontuan hartu behar da horretarako diru asko behar dana, batetik, eta itsasaldea ez dana geurea, bestetik, ze, nahiz

eta herriak erabili, inguru hori guztia Itsas Mugarte Sailaren menpekota da. Halan da ze, eurak dira zeresana eta zeregina daukenak.

**TX: Herri bateko izakera ingurune fisikoari lotua dago. Zein izan leiteke Bakioren ondoren jatorrean ingurune hori?**

**JB:** Lehenengo eta behin, planteatu beharko litzateke ea Bakioren zer dan. Jakina, Bakioren herri txikerra eta bertan dagoan klimari esker oso egokia izan da urtuan eta behar egiteko. Baina, itsasoaren erabilpenari ekiteagaz

baten, herriaren erabilera ludikoa badago eta horrek eragin nabarmena dauka. Izan be, hemengo herritar askok udan egiten dabe behar eta neguan oporrak hartu, hau da, lokalak, jatetxeak, tabernak, kafetegiak, ... ixten dira jenderik ez dagoalako, baina udan itsasoa daukazu. Orduan, urigintza aldetik zer egin behar da? Lurraren zati handia ondino be bertoko jendearena da. Halan da ze, hori jagon beharra dago, ze, urigintza gehiegi zabaltzen bajako etxegintzari, bertokoak solo eta lur barik geratu eta horren bitartez izakerari lotutako ezau-

uriaren kontzeptua Estatu Batuetan aspaldi aldatu zan, ze lehen jendeak urian bizi eta bertan egiten eban behar. Gaur egun, oster, jendeak urian egiten dala eta handik hogeita hamar edo hirurogei kilometrora bizi da, nasaitasuna eta bizi kalitatea gura dauazalako. Orduan, horrek Bakioren eta Uribe eskualde osora jende gehiago ekarri eta zerbitzuok errentagarri bihurtuko dira. Lehenengoz, beraz, horrelako abian ipinteko giza baliabide gehiago behar dira, azpiegiturak ezin dira eta egin, gero, hutsik egon daitezkan. Azken baten, gauza bat argi eta garbi euki behar da: sortzen diran gauzak ez dira kasualitateagatik eratzen, ez eta politika zehatz bategatik be. Izan be, ekonomiak, merkatuak eta kontsumoak zehazten dabe gauzarik gehienak bideratzeko modua. Eta hau guztia dinotsu, jendeak sarritan uste daualako udalak gura dauana egiteko aukera edo daukala, eta hori ez da halan.

**TX: Gazteon ardura da Bakioko lurra eta, ondorioz, etxebizitzak zelan karutu diran ikustea. Zer egin leiteke gazteei urtenbideren bat eskaintzeko?**

**JB:** Halakoetan, administrazioak babes ofizialeko etxebizitzak egiten dabilz parametro batzuk aintzat hartuta: pertsonaren egoera ekonomikoa, soldataren zenbatekoa, herriko izatea eta abar. Horretan, udalaren asmoa nahiko garbia da: horrelako etxebizitzak egitea, herritarrei era guztietako aukerak zabaldu behar jakezalako. Eta une honetan, Eusko Jaurlaritzagaz paratu gara hartuemonetan eta behin arau subsidiarioak finkatu ostean, bertan zehaztuko da

**Bakiotarren esku egongo da, eurek erabagi beharko dabe eta zer izan gura daben: Bilboko zati bihurtu edo bilbotarrak bertokotu, herriko izakera eta nortasunaren barruan sartuz eta integratuz.**

batera, udatiarrak ailegatu eta horrek herria oso-osorik aldatu dau ingurune fisikoari zein izakerari jagokonez. Ganera, gaur egun, Bakioren zeharo sartuta dago zerbitzu arloan, horrek herriko jendeari dirua emoten deusolako. Gaur egun, ez dago beste aukerarik, hau da, ez dago soluan behar egin eta horretatik bizi-modua ataratzeko modurik, baina bai lokal bat martxan ipini eta hondartzara datorren jendeari gauzak saltzea. Orduan, garbi euki behar da Bakioren hondartza daukan herria dana. Azken baten, nortasuna nork emoten dau? Ze, Bakioren neguan 1.500 biztanle daukaz eta udan, oster, 11.000 baino gehiago. Horrek itzelezko eragina euki ez eze, herriko nortasuna be aldatu egiten dau goitik behera, 1.500 horrek ezin dabelako hain izakera gogorra euki 11.000 pertsonen jokabide eta jarrerak aldarazoteko. Azken

gariak eta Bakioren bera be galdu egingo litzateke. Orduan, nik uste dot gaur egun udalean beharrean dabilzala bertoko gauzak, ohiturak eta ezaugarriak indartzeko.

**TX: Sarritan, Bakioren zerbitzu gehiago euki beharko leukezala aitatzten da. Zeintzuk dira, bada, zerbitzu horreek?**

**JB:** Horrelakoetan berbetan gabiz bertoko jendearentzako proiektuez, esate baterako, kiroldegi, ugertoki estali zein parke batez. Baina, horrelako egitasmoak aurrera eroan ahal izateko, diru asko ez eze, proiektua errentagarri be bihurtzeko jendea behar da, eta, hemen neguan ez dago horrelako bideratzeko behar beste giza baliabiderik. Dana dala, azken sasoiari igartzen gabiz, gehien bat, udan egondako jendea hona biziitzen etorri dana. Izan be,





horrelako etxebizitzak egiteko lursaila.

**TX: Bakio, gaur egun, Bilbotik 20 minutura dago, horrek jende andana ekarriko dau herrira?**

**JB:** Jakina jendea etorriko dana. Hori orain dala urte batzuk ikusi dogu Areetan eta Algortan, hasikeran, eta Berango, Sopela, Urduliz eta Plentzian geroago, ze hortxe trenan egon zanez gero, horrek aukera emoten eutsun Bilbotik joan-etorria egiteko, nahiko modu merkean. Ganera, gaur egunean, jende guztiak dauka kotxea eta honantz datorren autobidea konpontzen bada, jendea etorri egingo da. Ze Bilbon edo inguruan 30 milioi ordaindu behar badozuz 60 m<sup>2</sup>-ko pisua erosteko eta ganera parkinga behar badozu, ba, zeure buruari zera dinotsozu: kontxo, interesgarriagoa da hori baino askoz hobe izango dan etxebizitza erostea Bakio lako herri baten, nahiz eta beharrera bidean joan eta etorteko 30 edo 40 minutu behar izan. Ganera, itsasoa, mendia, giro nasaia eta ona daukat, eta, gaur egun, uriaren aldean askoz gozoagoak dira halako herriak. Orduan, pasatu leiteke Berango, Sopela eta Urdulizen pasatu dana, hau da, jendea etorri egingo dala. Eta horreek etorrikeran, kiroldegiak, plazak edo bestelakoak egingo dira. Eta herria gero eta hobeto egongo da. Eta gero eta jende gehiago hurreratu da. Horrelan, lo egiteko lekua bihurtu leiteke, Mungian daborduko gertatu dan moduan. Urigintzan badago "koipe orbana" deritxon kontzeptua, hau da, jendea batetik bestera mugitzen doa, alkarren ondoko tokiak berarenganatu. Eta zergaitik etorriko dira

Bakiora? Ba, honagino ailegatu dan autobidea egingo dabelako.

**TX: Azken aldion, Bakioko Udala arau subsidiarioak barriztetan dabil, zelan eragingo deutso horrek?**

**JB:** Ba, egia esan, historia apur bat ezagutu beharra dago. Orain dala 14 urte egindako arauak sano zorrotzak izan ziran, ze etxe bat egiteko beharrezkoa zan PERI (Plan Especial de Reforma Interior) burutzea, eta hori

**Eta zergaitik etorriko dira Bakiora? Ba, honagino ailegatuko dan autobidea egingo dabelako.**

bideratzeko alboko etxe guztietako jaubeen baimena behar zan eta jende guztiaren artean ordaindu. Arautegi zorrotz horrek ezinezko bihurtu dau etxebizitzak egitea. Ura lotuta egon da urte askotan eta gorantz eta gorantz joan da. Hori dala eta, etxea egiteko gogoa daukan gero eta bertoko jende gehiago egon da, baina urteak pasatu eta ezin zan ezer egin. Orduan, bertoko seme-alabek be bizi kalitatea bermatuko dauan etxe egokia gura dabe. Jakina, 14 urtean ez da ezer egin, orduan, arau subsidiarioek erdiguneko soloetan ahalbideratzen badabe etxebizitzak egitea, nahiko etxegintza handia izango da. Eta hori, alde batetik, normala da gauzak urte askotan egon diralako lotuta eta, ganera, Bilbotik hain paraje ez dagoalako Bakioko ezaugarriak (itsasoa, mendia, ingurune ederra) daukan herririk. Horrek guztiak aldaketa handia ekarriko

deutso Bakiori, bertoko seme-alaba guztiak herrian lotu eta Bilbotik zein inguruetatik jende dexente etorriko dalako biziten.

**TX: Zer egin behar Bakiok aurrera egin bai, baina, era berean, daukazan berezko ezaugarriek eusteko?**

**JB:** Lehenengo eta behin, esango neuke bakiotar guztiek lan egin behar dabela, bertokoak eurak eta, zelanbait esatearren, bertoko jaubeak diralako, hau da, hemengo sustraiak daukezanak. Orduan, lan egin beharko dabe bertoko nortasun eta izakerari eusteko eta ez kanpokoa hartu, hobe izan daitekela pentsatuz. Nire eritxiz, bakiotarrek argi euki behar dabe zer dauken horri eutsi ahal izateko. Ze kultura bi batzen diranean, indartzen dan kultura nagusitu egiten da. Halan da ze, bertoko jendeak ez daukanpora harririk bota behar, besteek egiten ez dabena behin eta barriz aitatuz. Horrelan, lehenengoz, Bakioko jendeak sentitu behar dau herria eta izakera euren dala, eta hori jagoteko ahalegin handiak egitea beharrezkoa dala. Osterantzean, hemendik urte batzuetara ez da Bakio izango, ezpadaze Bilboko zati bat. Dana dala, hori bakiotarren esku egongo da, eurek erabagi beharko dabe-eta zer izan gura daben: Bilboko zati bihurtu edo bilbotarrak bertokotu, herriko izakera eta nortasunaren barruan sartuz eta integratuz.


**TX: Zein neurritan lagundu ahal deutso urigintzak Bakioko izakera eta natur inguruneari?**

**JB:** Ba, urigintzak alderdi bi daukaz: soloetan etxebizitzak

**Urigintza, azken baten, horixe besterik ez da: herrietatik lurra hartu eta herriei leku edo gune barriak emoteko tresna.**

egiteko aukera, batetik, baina, era berean, horrek aukerak emon beharko dauz guztion lekuak konpondu eta apaintzeko. Argi euki behar da, beraz, urigintzak oinigitura barriak sortzeko erabilten dana, baina, aldi beratan, herriak konpontzeko aukera ezin hobe emoten dauana. Urigintza, azken baten, horixe besterik ez da: herrietatik lurra hartu eta herriei leku edo gune barriak emoteko tresna. Horrelan, gaur egun, udal arautegi guztietan aukera biak jasoten dira. Hori dala eta, ondo baino hobeto kontrolatu behar da zer emoten dan eta zer hartu, hau da, emon behar da jendeak ez galtzeko baina, neurri berean, herriak be ez galtzeko. Hori, zoritxarrez, ez zan orain dala 30 urte gertatzen. Izan be, lau etxegileri aukera emon jaken lurra hartu eta etxebizitzak egiteko (Toloñon eta hareatza inguruko gune horretan), baina eurek ez eutsen herriari ezer be emon, urigintza aldetik oinigitura bakar bat be sortu ez zalako, ez plazarik, ez kalerik ez ezer be. Honen bitartez esan gura dot sasoi haretan ez zala trukaketarik egon, gaur egun urigintzari esker ateratzen dan diruaren zati garrantzitsua herrian inbertitu behar dalako. Halan, gure beharra da diru kopuru hori ahalik eta handiena izaten lortzen ahalegintzea, herria hobetu eta behar lez apainduta egon daiten.

**Joseba TERREROS**





**OHARRA:**

Arlo honetara bialduko diran eritxiek izenpe-tuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz. Beste aldetik, ez dogu iraingarritzat jo daiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.



# AGUR, 6. MAILAKOEI AGUR!

Gure herriko eskolako nagusiei Bakioko eskolan egoteko epea bukatu zaie, horregatik Mungiako institutora joan beharra daukate. Hori dela eta, urtero bezala, agur-festa bat ospatu izan dute eskolan, ekainaren 19an, hain zuzen.

Jai dibertigarri horretan jolas ugari prestatu zituzten. Goizeko hamarretan, gurasoen aurka futbol partidu interesgarria jokatu zuten. Emaitza 3-3 izan zen. Seigarren mailakoei asko kostatu zitzaizen enpatea lortzea, baina, azkenean, pozik geratu ziren. Horren ostean, batzuk izer-

ditan egon arren, zelaierre partidu ikaragarri batean hartu zuten parte. Joku horretan ikasleek irabazi zuten, abantailaz, noski! Gero, hamaitetan, joku ugari egon ziren ume guztientzat, batez ere txikientzat: globo pusketaka, goilarean aurratza eramateka, eta abar.

Hamabiak aldera, seigarren mailako ikasleek beraiek ipuintxo bat antzeztu zuten: "Hitz egiten ez zekien printzesa" izenekoa. Denen uste-tan, pena merezi izan zuen. Antzerkiaren ostean, sari banaketa egon zen, argazki bana, hain zuzen. Seiga-

rrenekoak egonezinik ibili ziren, hainbeste argazki atera eta gero, aukeratutakoa zein izango zenaren zain. Baina alai amaitu zuten, oparitutakoa eskolako leku eder baten ateratakoa baitzen.

Azkenik, jendeak sabela tripa zorritz beteta zeukanez, "lunch" txiki batekin amaitu zen jaia. Zer jango ote zen etxeetan?

Jendea asko dibertitu zen egun horretan, pena bakarra: Aitor, Zuriñe, Xabier, Indi, Eztizen, Idoia eta Yera badoazela.

**ESKOLAKO GURASOAK**

«Lurra bigunago, harra barrurago.»



*Kafetegia eta  
Jatetxea*

Urkizaur Alde, 30  
Tfnoa.: 94 619 40 05  
**48130 BAKIO**

M. Angeles Abio URIARTE

**JANARIDENDA**



Benta Alde, 143  
Tfnoa.: 94 619 43 10  
**48130 BAKIO**


**KRESALA**



**KAFETEGIA**


Zubiaur Alde, 67  
Tfnoa.: 94 619 1 90  
**48130 BAKIO**






## ZER DERITXOZU «MISS REEF» LEHIAKETEARI?

Dakizunez, irakurle maitea, hil honetako amaieran, Miss REEF txapelketea izango da Bakioko haretzan. Honetan, REEF surf marka komertzialak babestuko dauan neskarik politena aukeratuko dabe. Ohidalakoa dan ezkerro, giroa "berotu" egin da eta jendearen eritxia hemen dozue. Eta nortzurena? Bada, Bakioko EGA ikastaroko ikasle-irakasleena, esate baterako.




**Kepa GARAIZAR**

Nire ustez, lehiaketa hori ondo dago. Bakiori ate barriak edegi ahal izango deutsoz, turismoari begira. Bakioko denden irabaziak haundituko dira lehiaketa moeta honeek dirala-eta.




**Ander OLABARRI**

Ondo dago Bakiora jende asko etorriko dalako eta ganera, neska politak egongo diralako.



**Miren GOIKOETXEA**

Ondo deritxot, baina gurago neuke neskak izan beharrean, lehiaketan esku hartuten dabenak, mutilak izango balitzaz. Beti dira neskak esku hartuten dabenak.




**Iban URIARTE**

Gizonezkoentzako ondo dago, baina neskek gurago leukee mutilak ikusi. Normala da-eta.



**Isabel BOIRA**

Garrantzi handiegia emoten jake, gaur egun, horrelango gauzei. Ez dira hainbestearainokoak.



**Naiara ARIZPE**

Sasoi honetan zerik tipikoena da hori. Holango gaiek beti emoten dabe zer esana.

*Anartz-Ziortza-Haitz-Larraitz*



# HeRRi bArriak

## Udalak 9 behargin kontratatu dauz udarako

Gauza jakina da udan Bakiok garrantzi turistiko handia eskuratu eta, horren ondorioz, biztanleen kopurua itzel handitzen dana. Hori guztia dala eta, udan sortzen diran aldi baterako beharrak beteteko asmoz, udalak urtean-urtean bideratzen dauz lanpostuak beteteko deialdiak.

Aurton, bada, udalak 5 udaltzain, 3 hondartzain eta Turismo Bulegorako behargin 1 kontratatu dauz lehiaketa-oposizino bidez egindako prozedurari esker.

Udaltzaina izateko 5 lanpostuak beteteko prest egon diran 16 hautagaietarik honakoxeak aukeratuak izan dira puntuazioaren hurrenkeraren arabera: Gaizka Longarai, Andoni Ordorika, Nerea Kanalaetxebarria, Miren Begoñe Ispizua eta Gaizka Uriarte. Era berean, udalak 3 hondartzain lanpostuak beteteko 15 hautagaietarik ondokoak aukeratu ebazan: Usue Mentxakatorre, Iñaki Eguskizaga eta Arkaitz Fernández. Turismo bulegorako aldi baterako plaza Aritza Ormaetxeari adjudikatu jakon.



## Txernobiletik Bakiogino

1986ko hondamendi nuklearrak ukututako Txernobilgo umeei aldi baterako harrera egiteko kanpaina martxan ipintearen ondorioz, Larrene baserriko Barrenetxea familia Sondikako aireportura bertaratu zan, bagilaren 26an, Irina Puchienskaya Ukrainako umeari harrera egiteko asmoz.

Halan da ze, Irina gure artean izango da garagarril eta abuztuan, eta etorkizunari begira, berari ostera be harrera egiteko aukerarik balego, Bakioko familia honek lehentasuna eukiko leuke beste hautagai batzuen aldean. Izan be, bisitaldia leku berean egiteak egonkortasun handiagoa emongo leuskio gure bisitari gazte honeri.

## Ikurrin urdina gure haretzarako

Europako Batasunaren babes barik emon dira aurtongo udaldian haretza kalitatearen ikurrinak. Hego Euskal Herriko 11 haretzatan (Bizkaiko 9 eta Gipuzkoako 2) eskegi dira, euron artean Bakioko Areaga haretzan be bai. Haretzearen kalitate onaren (garbitasuna, sorospen zerbitzua, segurtasuna, ingurugiro baldintza egokiak) erakusgarri imini deuskue oihal urdina. Hori lortuteko, lehenengo eta behin, udalek horretarako eskabidea egin behar dabe. Ikurrin urdina nori emotea, ostera, Espainiako Ingurugiro Hezkuntza eta Kontsumitzaileen Alkarteak erabagi dau. Alkarte hori Europako Federazioaren adar bat da, baina aurten bera beratar ibili da ikurrin urdinak emoten, Bruselako erakundearen babes barik. 1987. urtetik hona lehenengoz, ikurrinik ez banatutea erabagi dau aurten Europako Batasunak. Antza danez, ekologistek egindako salaketak dirala eta, hartu dau Europako Batasunak erabagi hori. Egon be, osasun baldintza txarretan egon ei dira ikurrin urdina euki daben haretza batzuk eta ikurrin barik lotu diran beste batzuk, barriz, osasun baldintza onak euki dabez. Europako Batzordeak birrikusiko dau ikurrin urdina emoteko arautegia, aurki. Halan da ze, aurtengoz, horretan, udaldion etentxu bat egitea erabagi dau. Halan eta guztiz be, Bakioko itsasoko uraren kalitatea neurtuteko hamabostaldi egiten diran azterketen emoitzak egoki-egokiak izan ei dira, ikurrin urdina barrian gure herrira ekarteko.

## Lehenengoz Bakion Ertzaintza-ren Musika Bandaren saioa

San Inaxio eguna dala eta, 30 gizezko eta 6 andrazkok osotutako Ertzaintza-ren Musika Bandak garagarrilaren 31n jaialdia eskainiko dau Bentako plazan, arratsaldeko 7:30etan. **OHARRA:** aro txarra egonez gero, ekitaldia Zubiaurreko pabilioian egingo litzake.

**Berton zure iragarkia argitaratu ahal izango dozu.**



## Gasa ekarteko hodiak laster

Propano gasa Bakiokora ekarteko beharrezko diran hodiak iminteko beharrak laster hasiko dira. Horretarako biltokia eta gasa etxeetara bialduteko banatzailea Artzalden egongo dira. Gas biltoki bi izango dira, guztira 99 m<sup>3</sup>-ko edukiera eukiko dabela. Hoditeria bide nagusiaren ondoan, haren paraleloan, sartuko dabe lurrian. Hodi sare nagusia 3 km-koa izango da, eta propano gasa zein gas naturala bananduteko balioko dau. Herritarrek zerbitzu horren ganean itaunak egin eta euki leikeezan zalantzak argitu daiezan, bulego bat zabalduko dabe herrian. Bakioko Udalak beharrak ahalik arinen hasi daiezan gura dau eta dana amaitu, 8 hilabeteren barruan amaitu beharko litzake, hau da, datorren urteko udarako gas banatzea indarrean egoteko moduan.

## Zuhur egon, udala lan poltsa eten barik gaurkotzen dabil eta

Udalak azken urteotan lan poltsaren zerbitzua eskaini dau. Bertan, behar barik dagozan gazteak sartu egin dira lanean hasteko urratsak jorrazteko asmoz.

Lan poltsa honetan 150 pertsonak emon dabe izena orain arte (Uribe eskualdekoak zein ingurukoak), baina udala gaurkotu beharrean dago ailegatzan diran lan eskaintzei erantzun egokia emon guran.

Hori dala eta, udal honek gazte bakiotarrengana jo gura dau, lan poltsa honetan sartzeko aukera ez daiela galdu gogorarazoteko edo poltsan segitu gura daben ala ez egiaztatzeko.

## Longarai, beste zerbitzu bat frontoi inguruan

Daborduko, edegi egin da Longarai ostaratzea, Ostalaritza Laguntzailea izateko Ikastaroan esku hartu daben 5 ikasleei esker. Udalak, INEMegaz berbatu lez, Longarai ipini dau martxan ikastaro horri amaiera emoteko praktikaldi modura. Horri esker, bada, udako ostalaritzako eskaintza handitu ez eze, Zubiaur auzoan hartuemonetan paratzeko be beste lokal bat izango da. Urriaren 26ra arte Kepa Freirek beteko daz Longarai kudeaketa zereginak.

Bagilaren 3an edegi zan taberna eta domekatik martitzenera egoten da zabalik goizeko 11:00etatik aurrera.



## Datozan inbertsinorik handienak herrian

Aurtengo udal arrekontuetan, Bakioko erreka nagusiaren [Ojaorta (*udxorta*)] bideratze beharrek dirutzarik handiena egiten dabe, 131 milioi hatan be. Era berean be, Bentalden lur azpiko aparkalekuak (78 guztira) egiteko 150 milioiko dirutza bideratuko dau Udalak. Aparkalekuen beharrak udearen ostean hasiko dira eta 10 hilabeteren barruan amaituko dabez. Aurtengo inbertsino plana 620 milioikoa da, aurrekontuaren %54a. Beste alde batetik, erabilera eta zerbitzu askotariko pelotaleku bat egitekotan ei dagoz udalean, honetarako oraindinokarren dirutzarik aurreikusi ez badabe be.

## Bakiok, daborduko, badauka soinularien taldea

Taldea eratu zanetik urtebete igaro danean, Bakioko Soinalarien Taldeko arduradunek hasikerako proiektuari jarraipena emotea lortu dabe.

Gazte soinulariak prestatzeko astean-astean egindako beharraz aparte, azpimarratzekoak dira gure herrian, gabonetako eta aratosteko jaiak dirala-eta, eskaini dabezan ekitaldiak.

Hurrengo ikasturterako (1999-2000), taldeak hainbat proiektu aurreikusi daz, barbarako, herriko jaietarako emonaldia (2000) prestatzea eta "Trikitixa Egun"ean parte hartzea, bai eta txapelketa batzuetara bertaratzea be.

Taldea 11 kidek osotzen dabe: Nagore Garai, Miren Josu Goiartzun (irakaslea), Marian Sánchez, Esti Markaida, Aitor Garai, Iratxe Renteria, Indi Letelier, Arkaitz Legarreta, Miren Alazne Iturain, Amets Jauregizar eta Etzoz Elgezabal.



## Bagileko Hauteskundeak Bakion

Joan dan bagileko 13an hauteskundeak izan genduzan herrian. Eurotan hiru hautu egin behar izan genduzan, hau da: Udal, Batzar Nagusi eta Europarako hautuak. Lortutako emoitok aldaketa txikiren bat edo batzuk ekarri baeuskuezan be, handi-handika, aldaketa nabarmenik ez zan egon. Esan behar be, hautu egileak gehiago izan dirala arteragoko hauteskundeetan baino (57 hautesle gehiago), herrian lagun gehiago bizi da eta.

Amen, bada, emoitok:

### UDALERAKO HAUTESKUNDEAK

Hautesleak	1.406	
Abstenzinoa	281	
Zuri-hutsak	50	
EAJ	662	→ 6 zinegotzi
EH	249	→ zinegotzi 2
EA	103	→ zinegotzi 1
PP	47	
PSOE	14	



### BATZAR NAGUSIRAKO HAUTESKUNDEAK

Hautesleak	1.406
Abstenzinoa	283
Zuri-hutsak	30
EAJ-EA	752
EH	239
PP	57
IU/EB	19
PSOE	18
PH	5
Plazandreok	2
ICV	1



### EUROPARAKO HAUTESKUNDEAK

Hautesleak	1.406
Abstenzinoa	287
Zuri-hutsak	29
EAJ-EA	740
EH	238
PP	55
PSOE	26
IU/EB	14
Berdeak-L.V.	7
PH	3
Berdeak-G.V.	3
BNG	2
PLN	1
FEMEK	1



## KONTUZ, ABIADEA GITXITU!

50 km-ko abiadatik gora ibiltea galazota egon arren, jakina da herriko bide nagusian ibilgailuak behar baino abiada handiagoan dabilzana. Daborduko, arazo honek bateri baino gehiagori ikarearen bat edo batzuk eragin deuskuz. Autoek orain baino astiroago ibili behar dabe bide nagusian, gura eta gura ez. Hori dala eta, udalak bideko behearen ganean, han-hor-hemenka, halango lurreko zerrenda makartxuak imini dauz, autoen abiadea gitxituteko asmotan, aurki. Honetan udalaren guraria eta borondatea ontzat emon behar dira. Ondorioak, barriz, bestelangoak izan dira, gure eritxi apalean. Berebilak lehengo bestean arin ibiltzen dira orain be, eta zerrenden ganetik igarokeran egiten daben zarateak bateri baino gehiagori ez deutso gauean begirik batuten itzi izan.

Abiada larregiaren arazoa beste era batera konpondu beharko litzake, herritarren bizi kalitatean eragin okerrik izan barik, baina. Udalak hori holan ulertuta, neurri hori bertan behera iztea eta beste neurri batzuk aztertutea erabagi dau, esaterako: Ertzaintza sarriago herrian egotea, radarrak imintea, ... Era berean, urigintza arloko arduradunak atsekabea azaldu gura deutsee herritarrei zerrendek eragindako alamena dala eta.

## GURE ETXEAKO

### ZAHARREN ALKARTEA ETA OSASUNA

Maiatzaren 26an osagile bat hurreratu zan Bakiora zaharren entzumena zelan dagoan aztertuteko. GURE ETXEAN egin zan azterketa hori eta ez jakon inori horregaitik ezelango dirurik eskatu. Batzuei audiometria bana egin eutsen osagileak. Diagnostikoa egin ostean, bakoxtaren esku lotu da gorreriari aurre egiteko salduten diran gailuak erostea. Hau guztiau Bakioko Hirugarren Adineko Taldeak eratua izan da. Talde hori orain dala hemeretzi urteko San Jose egunean jaio zan. Ordurik hona, talde horrek hainbat eta hainbat ekintza eratu izan dauz. Esaterako, udabarri eta udako egun bakarrek osterak; urte osoan, bost edo sei izaten dira-eta. Arrasti guztietan karta jokoan izaten dira herriko hainbat adineko GURE ETXEAN. Guztira, 250 bazkide daukaz alkarte horrek. Horrezaz ganera, osasunari buruzko berbaldiak be eratu izan dira bertan. Eta urteroko abenduko bazkideen arteko bazkaria be egiten dabe. Ekintza guztiotan alkarteko bazkideak ez diran herritarrak be onartuten dabez. GURE ETXEAKO atea goizeko hamaiketatik gaueko bederatzia arte, udan hamarrak arte, egunero dagoz zabalik.





# UDAL BARRIA BAKION

Garagarrilaren 3an, goizeko 12etan, azkenengo hauteskundeetan aukeratutako ordezkari politikoek, udalkide barriek, hartu eben euren lekua udalean. Udal batzordeak handik eta hilabetegarrenean osotu beharko dira. Hurrengo honeexek doguz, bada, agintari barriok: EAJren aldetik, Txomin Renteria, Kepa Uriarte, Floren Zabala, Jon Ormaza, Juan Mari Anitua eta Luis Aio; EHren aldetik, Begoña Makazaga eta Ibon Kanzia; EAren aldetik, Begoña Zubiri. Lehenengo batzar horretan datozen lau urteotarako alkate izendatu eben Txomin Renteria. Alkate izendatu barriak eskuzabaltasunez jokatu daua adierazo eutsen beste talde politiko biei. Herria aurrera eroateko danon alkarlana beharrezkotzat emon eban. Beraren esanetan, batez be, Lizarra-Garazi dalako itun hori hiru alderdiok bultzatuten dabelako. Beste taldekoen aldetik, ostera, ez zan egon ezelango erantzunik. Alkarlana eskaini eutsen besteei, alkarlana beharrezkoa da-eta herriko nortasunari eusteko. **Halan beite!**



## Euskal Selekzinoen alde Bakion

EUSKAL  
SELEKZIOAREN  
eguna



Badago Euskal Herrian *euskal selekzinoen* alde gogotsu beharrean dabilen lagun taldea, ESAIT deritxona. Euskal kirol selekzinoak mundu mailan onartu daiezan, da izan euren helburu garbia. Hori, baina, ez da lortuko, lehenengo, euskal herritarrek helburu horri oneritxia emon barik. Aurrera darabilen kanpaina hori zeren ganean dan, herririk herri dabilz jo ta ke azalduten. Oraingoan, bertoko Udalaren

babes eta laguntzaz, Bakiora hurreratuko jakuz, datorren abuztuko 10etik 15era hurreratu be. Eta zer ekarriko dabe gurera? Hiru gauzok:

**Erakusketea:** Udaletxean, abuztuaren 10etik 15era.

**Mahai ingurua:** Kultur Etxean, abuztuaren 13an.

**Kontzertua:** Probalekuan, abuztuaren 14an.

Ekitaldiok hasteko orduak sasoiz emongo dabez jakitera.

Aurrean esandakoa ez eze, hurrengo honeexek be ekarriko deuskuez: erakusteko diran argazkiak, kirol jantziak, dokumental eta film batzuk, liburuak, CD-ak, jantziak salgai eukiko dauazan mahaia, eta abar... Mahai inguruan, kazetariak, jokalariak, agintariak, politikoak-eta izango doguz berbalari eta euren eritxiak guregaine ekarriko dabez. Kontzertuan, barriz, Gontzal Mendibil, Niko Etxart eta Joseba Gotzon euskal abeslariak hartuko dabe esku, Margarita Lorentzok zuzendutako Ganbara Orkestreak lagunduta. Kontzertua ordu bikoia izango da, gitxi gorabehera. Hori guztiori Joseba Gotzon sustatzailearen zuzendaritza pean.

Beioa TXIRRITXOLA egiten dogunongandik bertara hurreratu zaitezeneko deia. **Erduze ekitaldiotara!**



# Bakio, Euskadiko Txapelketako Pala Laburreko

## 1. Finalaren lekukoa



Bagilean barrena eta garagarriaren 1. astean Bakioko frontoian jokatu zan Euskadiko Txapelketako Pala Laburreko 1. finala. Norgehiagoka horretako tanteoa 35-12 izan zan eta Soler bizkaitarrak nagusitasun handiz irabazi eutsón Erburu II. nafarrari.

Txapelketa hau zirkuitu modura eratuta dago eta hiru final eukiten dauz. Horretarik lehenengoa Bakion jokatu da (58 txapeldungai), bigarrena Zarautzen (Gipuzkoa) eta hirugarrena Zidorran (Araba). Final bakoxtaren ostean, hainbat puntu emongo jakoz lehenengo lekuetan sailkatutako pelotariei. Puntu horreen arabera, bada, puntuazinarik gehien lortu daben lehenengo 12 palariak artezean pasatuko dira Sopelan irail inguruan jokatu dan finalera. Bakion, garagarriaren 3an finala jokatu ostean, eskuratu eben puntuazinoa honako hauxe izan da:

-Oroz: 120 puntu

-Otero II: 100 puntu

Bakio Surf Taldeak lehenengoz aurkeztu dau gure herrian Europako zirkuituko surf profesionaleko proba bat. Horrelan, garagarriaren 23, 24 eta 25ean gure hareatza ikuskizun bikaina ikusteko lekua izango da. Izan be, Europako surflaririk onenak ikusteko aukera ezin hobea eukiko dogu. Bakioko Udalaren laguntza jaso dauan Bakio Surf Taldeak bakiotar guzti-guztiak gonbidatu gura dauz hareatzen gauzatuko dan ekitaldi honetara.

Ekitaldi honen garrantzia Sopela, Donostia eta, azkenik, Bakion egingo dan "Hiruko Txapela" izeneko probaren barruan ikusi beharra dago. Izan be, hiru lehiaketako txapelduna Bakion egingo dan azken proban ezagutu ahal izango dogu.

Azkenik, garagarriaren 24ko arratsaldeko 8:00etan, zapatuz, Miss Reef 99 izeneko bikinien txapelketa egingo da; bertan modelo gazteak euren txokoa topatzen ahaleginduko dira modaren mundu lehiakorrean. Horrelan, zapatuko ekitaldia amaitu ostean, zuen begira egongo gara Gabbianon egingo dan surf jaiari, bertan Akatz Reegae Band taldearen emonaldia izango da eta.

*Uda honetako beste surf txapelketa batzuk:*

Garagarriaren 17 eta 18an: **Lurralde mailako I. Proba.**  
 Abuztuaren leian: **16 urtetik beherakoentzako Billabong Surf Txapelketa.**  
 Abuztuaren 14 eta 15ean: **Lurralde mailako II. Proba.**  
 Irailaren 11 eta 12an: **Lurralde mailako Talde Txapelketa.**

*Surf eta Body ikastaroak, Bakio Surf Taldeak antolatua:*


## BAKIO REEF PRO AM \* 99, surf profesionaleko Europako zirkuito proba



Hilabeteak: garagarriaren eta abuztuaren.  
 Orduak: astelehenetik barikura goizeko 9:00etatik 11:00etara.  
 Prezioa: 15.000 pta. hilabete bakoxteko.  
 Asegurua: 3.000 pta. Urtebeteko baliozkotasuna.  
 Materiala barruan: taula eta boogie.  
 Argibideak: Turismo Bulegoan edo paratu hartuemonetan Gontzal Mendiola, Iker Erauzkin, Sergio González edota Gabi Urrutia irakasleakaz.

**«Txarria, beti hasatzara.»**





## Bakio berbarik berba liburua salgai

Sasoia izan da, gero! Baina bai, liburua salgai dago, daborduko. Zegan? Ba, 1.500 pezetan. Liburu txukun honek Bakioko euskerearen zati bat, leba handiko zati bat, agertuten dau. Iñaki GAMINDE hizkuntzalaria izan da egilea. Egileak esan daroan lez, oraindikarren Bakioko euskerearen beste zati handi bat batu barik lotu da eta TXIRRITXOLAREN lerrootatik bakiotarrei deia egiten deutse horretan arduratu daitezcan. Lehenago esan dogun lez, liburua txukun-txukun lotu da. Horretan Labayru Ikastegiaren

## GAZI-GAZA


-Zein da ardaorik onena?  
-Inoren etxean edaten dana.

eskua igarri da. Esan behar be, Bakioko Udalaren laguntzino eta babesa erabagiorrak izan dirala proiektu hau aurrera atara ahal izateko. BBKk be laguntzinoa eta babesa emon dauz. Liburuaren aurkezpena garagarrilaren 10ean egiteko izan bazan be, gaiagaz zerikusirik ez dauken beste arrazoiakaitik atzeratu behar izan dabe, jakitera emon deuskuen garagarrilaren 30era arte.

**Erosi eizue liburua, merezi dau eta!**

## GAZTEA aldizkaria

Urkitza eskolako ikasleek egina izaten dogu bertan euskeraz egiten dan aldizkaritxu hori. GAZTEA dauka izena, eskolako ikasle gaztetxuek egiten dabe-eta. Aldizkarian, herriko zein herritik kanpoko albisteak irakurri leitekez: Eskolea, Bakio, Euskal Herria, Kirolak, Mundua, Kultura, ... sail nagusiak dirala. Albisteak eta aldizkariaren diseinua era errezean aurkeztuten dabez, gaztetxuei jagoken lez. Irakasleen zuzendaritza eta eskua aldizkaritxua aurrera atarateko beharrezko egiten dira, maketazinoa egiterakoan, esaterako. Ale kopuru mugatua dau, ikasle eta beroneen gurasoen artean bananduten dabela. Ikasturtean zehar ataraten dabe, lau-bost bider, gehienez.



## BERTSO AFARIA UDAN

Datorren abuztuaren 12an Udako Bertso Afarria izango dogu **Unai Elorriaga** eta **Igor Elortza** bertso-lariakaz. Afarria ARIMUNE ostatuan izango da eta ilundiko 9.30etan hasiko da. Salneurri bakarra izango da: 2.000 pta. Sartuteko txantelak Kultur Etxean dagoz salgai, arratsaldeko 5etatik 9retara. Bertso Afarria Bakioko Euskera Batzordeak eratu dau eta herriko eta udatiar euskaldunen arteko hartuemonak euskeraz zabaltzea dau helburu. **Erduze!**


## NAZINOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Garagarrilaren 30ean, ilundiko 10.30etan, Udalaren eta Portugaleteko ELAI-ALAI dantza taldearen laguntzaz, ITXAS-ALDEKOOK urteroko Nazinoarteko Folklore Jaialdia eratu izan dabe Bakion. Horretarako, Frantziako Landetatik NOUS CIGALOUNS DE MOURSEUNS, Quebecoko LES ECLUSIERS eta Txileko BALET FOLCLORICO DE CHILE BAFOCHI dantza taldeak ekarri izan dabez. Herrialde ezbardinetako dantzari zehatz koloretsuek munduko argitasunez jantzi izan dabe San Inazio aurreko gaua, ikusleen gozamenerako. Aurten be, bakiotar zein udatiarrak parra-parra agertu izan dira dantzaldira eta euren txalo beroek gaudiaren arrakastea eta egindako lanari oneritxia argi be argi itzi izan deuskuez.





# Azkenaldion euki doguzan erakusketak




Udaletxeko erakusketa aretoan, urte osoan zehar, behin eta barriz, danetariko erakusketa interesgarriak egoten dira ikusgai. Eurok ikusten joaten diranak, oster, herriko seme-alaba gitxi batzuk izaten dira. Esan leiteke beti berberak dirala bertara joaten diranak. Hau tamalgarria da. Egin be, ahal-egintxua egiten dabe danetarikoak eta eurrez ekarten, eta herritarren aldetik erantzuna sano motela izan da, orain artekoan. Ez da, ganera, hara sartuteko dirurik eskatuten, sartukerea doarikoa izaten da-eta. Esate baterako, azkeneko aldion herrian euki doguzan erakusketetarikoen artean hurrengo honeexek izan dira aitagarrienak:

- Maiatzaren 29tik bagilaren 10era: **"Eguzki bidezko asmakariak"**.

**AKUARELA ERAKUSKETA**  
Nati Alonso  
eta  
Rosa Marina  
Kultur Etxeko Erakustaretoan  
Uztailaren 1etik 16ra arte

-Bagilaren 11tik 30era bitartean: **"Eskulan ikastaroaren ikasleen beharrak"**.

-Garagarrilaren 1etik 16ra: **"Akuarela erakusketea: Nati Alonso eta Rosa Marina"**.



## HERRIKO EKANDUAK JAIETAN 1

aurrez aurre eta zutunduta iminten eben herriko ikurrina. Kontsagrazinoan, aurretuxan herriko ikurrina kenduta, eleizpetik txistularien Agur Jaunak eresia entzuten zan. Kontsagrazinoaren ostean, barrian iminten eben ikurrina lehengo lekuan, mezea amaitutakoan batu egin arte. Mezearen ostean dantzak egoten ziran eleiz aurrean eta ardao gozoa eta gailetak eurrez bananduten ebezan herritarren artean. Ekandu hau guda aurretik zein ostetik urte askotan egin izan da Bakion.

**ANDRA MARI EGUNA** – Andra Mari egunez joaten ziran udaleko ordezkarriak, alkatea eta zinegotziak, udaletxetik goiko eleizagintzako ibilbidean, oinez eta dotore jantzita, meza nagusira joan be. Herriko txistulariak bidea zabalduz joaten zirala, bigarren lekuan udaltzain bat joaten zan lepoaren ganean herriko ikurrina eroaten, eta gero, atzetik, udaleko kide guztiak. Eleizan mezea entzuteru sartu eta aldare nagusiaren ezker aldean,

# Aurtongo udako ekitaldiak

Herriko Turismo Bulegoak zein Kultur Etxeak uda honetarako eraturako ekitaldien barri dakartsuegu hemengo honetan. Bai maiatzean, bagilean zein garagarrilean izandako ekitaldien barrien ganera ez dogu hemen gauza handirik aitatuko, danetariko ikastaroak, erakusketak, urtekerak, txapelketak, lehiaketak, jaiak, dantzaldiak eta abar izan dirala baino, danon aukerako izan be.

Datozan abuztu eta irailari jagokonez, hurrengo egitarau mamintsu hau eratu dabe goian aitatutako erakunde bien behargin arduratsuek:

### ABUZTUAN

- 2an: II. kale zinemaldia.
- 2tik 27ra: soinketa ariketak haretzan.
- 3tik 8ra: II. hipika ikastaroa.
- 4an: aukeratutako ardao txastaketea.
- 9an: II. bildur gaua.
- 10ean: urtekerea: Burgos eta Sto. Domingo de los Silos.
- 12an: bertso afaria.
- 9tik 12ra: olgeta tailerra.
- 12tik 13ra: rapel-en inguruko ikastaroa.
- 15ean: Andra Mari Eguna.
- 17tik 18ra: arku jaurtiketearen inguruko tailerra.
- 19an: kirol jarduera askoko urtekerea.
- 22an: XXXIII. Marmita Txapelketea.
- 23tik 26ra: II. piragua ikastaroa.
- 24an: II. ipuin kontalaria.
- 28an: harezko gazteluen txapelketea eta rokodromoa.
- 29an: XIV. Nekazaritza Azokea.
- 28tik 31ra: San Joan Dolozak.

### ERAKUSKETAK:

- 9tik 20ra: Ramón Barreiro.
- 9tik 13ra: Euskadiko football selekzinoaren historia.

### IRAILEAN:

- 5ean: Eskulangintza Azokea.
- 5ean: Bermeotik Bakiorako VI. Lasterketea.
- 6an: III. bildur gaua.
- 29an: San Migel Eguna.

### ERAKUSKETAK:

- 1etik 10era: Migel Garai eta Janire Calleja.
- 13tik 30era: argazki lehiaketaren erakusketea.

### Udan zehar:

- Futbito Txapelketea.
- Piragua ikastaroak. Gitxienez: 6 lagun.
- Surf ikastaroak.
- Rapel ikastaroak. Gitxienez: 6 lagun.
- Euskera ikastaroak AEKn.
- Argazki Lehiaketea: San Joan Dolozak eta ospakizunak.
- Ibilaldiak bidezidorretatik zehar: eguazteno, goizeko 9.00etan.
- Mountain Biken egiteko urtekerak: zapatu goizetan.
- Ikastaroak eta jokoak zaldi ganean.
- Azkenengo unean, aldaketaren bat egongo balitz, oztopoak parkatuteko eskatu gura dabe eratzailleek. Argibide gehiago gura daianak jo bei hurrengo lekuetara edo eurotara deitu:

Turismo Bulegoa: 94.619.33.95  
Kultur Etxea: 94.619.33.69



# BAKIOKO XII. MUSIKA ASTEA


Garagarrilaren 19tik 25era egin da, urtero lez, Bakioko Musika Astea. Aurten hamairugarrenez. Bakioko ekitaldia izan ezean, beste emonaldi guztiak goiko eleizan egin dira, Andra Mariko eleizan. Bakioko ekitaldia, barriz, Zubiaurreko probalekuan egin da. Entzule asko be asko hurreratu da emonaldi guztietara, arteragoko urteetako arrakastea zeozelan sendotuz. Zer esanik ez dago, Bizkaiko udako musika zirkuituan Bakioko Musika Asteak lehenengoetariko leku bat lortu dauana, bai musikari eta eurek jo daben goreneko mailako musikearen aldetik, bai entzuleen aldetik be. Musika Astea Bizkaiko Foru Aldundia ta Bakioko Udalaren babesaz eta Bakioko Abesbatzako kideen laguntzaz egin ahal izan da. Aurtongo egitarau orokorra hurrengo hauxe izan da:



- Garagarrilaren 19an** Bilboko Kantu Lirikoaren Nazinoarteko Lehiaketako irabazleen emonaldia.
- Garagarrilaren 20an:** Pablo de Naberan eta Alfonso Sebastián, biolontxelo-piano bikotea.
- Garagarrilaren 21ean:** «Virtuosos de Caracas» ganbara orkestra.
- Garagarrilaren 22an:** Sylvia Gutiérrez eta Cristina Sánchez, arpa-gitarra bikotea.
- Garagarrilaren 23an:** «Alboka» euskal folk taldea.
- Garagarrilaren 24an:** Bakio eta Mungiako Abesbatzak eta Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa.
- Garagarrilaren 25ean:** Joaquín Atxukarro pianojolea.


Zapatuko emonaldia izan ezik, beste emonaldi guztiak arrastiko 8retan hasi dira. Zapatukoa, ostera, arrastiko 8,30etan. Egitarau hau eratu ahal izateko aurtengo aurrekontua 5,4 milioi pezetakoa izan da. Bizkaiko Foru Aldundiak, 19 enpresa pribatuk eta Bakioko Udalak emonadako diru kopuruei esker eratu ahal izan da Musika Astea.

# BAKIOKO KALEKO II. PINTURA LEHIAKETEA



Bigarren urtez, bagilaren 19an egin zan Kanpoko Pintura Lehiaketea gure herrian. Irabazlea Jon Idigoras Mugerza (Ermua) izan zan eta 250.000 pta-ko saria eroan eban berarenera. Basigo baserriari egin-

dako akuareleak irabazi eragin eutson lehenengo saria. Bigarren lekuan, barriz, Jose Ramon Guerra (Bilbo) lotu zan. Honek olioiz egindako margokiak Basigoko uriauzoa erakusten dau, Andra Mariko eleizea erdi-erdian dagoala. Honentzako saria 150.000 pta-koa izan da. Eratzaileen esanetan, aro txarrak ez eban bape lagundu eta, hori dala-eta, margolari gitxi aurkeztu ei zan lehiaketara. Lehiaketea Udala,



Kultur Etxea zein Turismo Bulegoaren babesaz eta Bilbao Bizkaia Kutxaren diru laguntzaz eratu izan da. Guztira, kalitate handiko 15 lan aurkeztu ziran eta herriko hainbat txoko eta leku ezagun erakusten dabe. Aurkeztutako margokien kalitatea ikusita, udalak aurreikusi egin dau 2.000. urteko udal egutegian 12 lanik onenak argitaratuteko aukerea.

*Hau zeure iragarkirako lekua izango da.*



# EGA ikastaroa AEKn

Autongo udarako, EGA ikastaro trinkoa eratu dau Bakioko AEKk. Ikastaro hau garagarria, abuztua eta irailean zehar egingo da herrian, horretarako ikasle kopuru nahikoa izan ezkerroan. Osterantzean, Mungian egingo dabe. Interesatuta dagoanak izena emoteko honako telefono zenbaki honeetara deitutea baino ez dauka:

**BAKION:** Turismo Bulegoa - 94.619.33.95

**MUNGIAN:** Berteiz, 8 - 94.674.43.13

Beste alde batetik, sukaldaritza ikastaroa eratu dabe alkarregaz AEK eta Turismo Bulegokook herrian. Beraren sasoiaren haren barri iragarri eben lez, ikastaroa joandako garagarriaren 26tik 30era, arrastiko 5etatik 7etara, egin izan da Longarai jatetxean. Hara joandakoek 5.000 pta-ko izen-emotea ordaindu behar izan dabe. Ikastaroaren gaiak: "egun-eroko otorduak zelan egin", "egun berezietakoak", "jakiak (okelea, arraina,...) zelan erosi", "ardoak noz eta

**SUKALDARITZA ZEURE ESKUKA!**

BAKION uztailaren 26tik 30era  
arratsaldeko 5etatik 7etara  
Longarai jatetxean

**Edukiak**

- Eguneroko otorduak ( Menuak ).
- Egun berezietarako otorduak.
- Oheleak, arrainak, etab. .... erosteko aholkuak.
- Ardoak noiz eta zelan.

**Emoleak:**

- Ainhoa Ormazabal
- Itepa Freire
- Itziar Insausti
- Patxi Renteria

**Matrikula: 5000 pta**

**Izen - emotea: Turismo bulegoan**

**Antolatzaileak:**  
Bakioko AEK  
Turismo Bulegoa

**Laguntzaileak:**  
Gomonda Txaholindegia  
Patxi Herategie

zelan". Irakasleak, Ainhoa Ormazabal, Kepa Freire, Itziar Insausti, eta Patxi Renteria bakiotarra izan dira.



## GAZI-GAZA

-Zein da inoiz  
beteten ez dan  
itsasoa?

-Zekenaren diru-  
zalekeriea.

## UDALEKU EDEGIA EUSKERAZ BAKION

Azkenengo urteetan ikusitako arrakastearen gorakadea dala-eta, aurtien be udaleku edegia herrian erateuta erabagi eben Bakioko Euskera Zerbitzu eta Kultur Etxeak. Garagarriaren 19an hasi izan da, hileko 30ean amaitu artean. Esan behar, 7 urterik 12 urtera bitarteko 24 umek, herriko zein udatiar, emon dabela izena. Umeok aldi horretako aste-egunetan goizeko 10etatik arrastiko 5etara joan izan dira udalekura, gurasoen poztasunerako, joan be. Hainbat gauza barri ikasi ez eze, olgau be gura izan daben beste egin dabe. Umeok eurok be pozarren, jakina. Ea datorren urtean be hantxe ikusiko dogun alkar!

### UDALEKU IREKIAK EUSKERAZ BAKION

Uztailaren 19tik 30era  
Asteegunetan, 10:00etatik 17:00etara  
7 urterik 12ra bitarteko umeentzat  
Diru kopurua: 9.000 pta.



**Izena emoteko epea:** ekainaren 30era arte,  
Bakioko Kultur Etxean, arratsaldeetan.

## San Joan Dolozak 99 jaketako egitaraua

### Dagonilaren 27an

18.00etan - Pelota partiduak, pelotalekuan.  
23.30etan - Gau dantza: Alaitz eta Maider, Zubiaren.

### Dagonilaren 28an - San Agustin Eguna

12.00etan - Harezko gaztelu txapelketea eta rokodromoa, haretzan.  
17.00etan - Futbito txapelketearen azkenak, Urkitza ikastetxean.  
18.00etan - Pelota partiduak, pelotalekuan.  
20.00etan - Jai hasikerako danbadea, Bentan. Kalerik kalekoa Zubiaregino: burdia, txakolina, dantzariak, musikariak, koadrilak, sardin-jatea, ...  
22.30etan - Euskal Folklorea: BEGIRALEAK (Lapurdi) eta ERREGE TXOPITAK (Zuberoa) iparraldeko dantza taldeak, probalekuan.  
24.30etan - Rock kontzertua: R-AKZIOA, AKATZ eta ZEA MAYS, Zubiaren. Gau dantza, Enderika enparantzan.

### Dagonilaren 29an - San Joan Doloz Eguna

10.00etan - Nekazal azokea, Portuondon.  
10.30etan - Kalerik kalekoa.  
13.00etan - Ardi txakurren erakusketea, Urizarretan.  
18.00etan - Pelota partiduak, pelotalekuan. TXAN magoa eta gazteentzako mozerro lehiaketea, udaletxeko enparantzan.  
20.30etan - Euskadiko Trontzalarien Txapelketea, probalekuan.  
23.00etan - Su artifizialak, haretzan.  
24.00etan - Salsa gau-dantza eta mozerro lehiaketea, Zubiaren.

### Dagonilaren 30ean - San Joan Doloztxu Eguna

11.00etan - Kalerik kalekoa.  
12.30etan - Sokako aurraskua (Andra Mari Dantza Taldea), jota erakusketea, Urizarretan.  
17.00etan - Nafarroako joteroak eta Bakioko Abesbatza, Tabernalden.  
18.00etan - Pelota partiduak, pelotalekuan. Goitibeheren jatsikerea, San Pelaioren.  
20.00etan - Umeentzako erromeria, Bentan.  
23.00etan - Kontzertua: BENITO LERTXUNDI, probalekuan. Ostein, gau dantza TRIKI-TAKE taldeagaz, Zubiaren.

### Dagonilaren 31an - Eneperi Eguna

11.00etan - Kalerik kalekoa.  
12.00etan - Paella txapelketea, Urizarretan.  
17.00etan - GORRITlren jokoak, Urizarretan.  
21.00etan - TIRRI-TARRA fanfarrea, Urizarretatik Zubiaregino.  
22.00etan - Txistorra jate eta koadrilen sari banaketea, Zubiaren.  
23.00etan - Suzko zezena eta gau dantza fanfarreagaz.

### Irailaren 4an

18.00etan - Tortilla txapelketea, Bakeako zelaian.

### Irailaren 5ean

10.00etan - Artisau azokea, Bentan.



# ESKOLAKO IKASTURTEAREN AMAIERIA

Joan egingo dira, bada, aurtengo ikasturtea amaitu daben ikasleak herritik kanpora ikasten. Bertoko eskolan itziko dabez umezaroaren gomuta gozo eta berogarriak. Mundu zabalera begiak edegitea dabe gaingora betebehartzat. Guraso-irakasleengandik berarizko agur esate gogoangarria izan eben ikasle izandakook joandako bagilaren 19an. Era askotako olgeta atsegingarriak, guraso eta ikasleen arteko aupada biziak, antzerki apal koloretsua eta bestelangoak eurrez izan ziran han eskola ingurukoetan. Ordu pozkor eta gozoak izan ebezan hara bertaratu ziran guztiek. Batez be, omenduek, jakina! Euron ume bihotzetan betiko lotuko da bertan emondako orduen gomutea. Herriko eskolan bizi izandako ikastaldia inoz euron buruetan lausotuko ez dan lez. Bihotz irribarretsuan gordeko dabez urregorritzko une disdiratsuok eta itxaropentsu begiratuko dabe itsasoko hedoiertzerantza. **Zoriona eta urte askotarako!**




## TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozuentzako salneurri barriak. Salneurriok 1999ko apiriletik aurrera egongo dira indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkeruan, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94.6193369.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale1
8rena (125 x 85)	10.000	7.500	5.000
16rena (87x66)	7.500	5.000	3.750
32rena (66x40)	5.000	3.750	2.500





# SAN JOAN SUA, BAGILAREN 23AN

# SAN JOAN JAIA, BAGILAREN 24AN



BAKIOKO UDALA  
(Bizkaia)

BAGILAK  
24  
DE JUNIO

SAN JUAN  
BAKION

13:00-15:00  
16:30-21:00

«ZOROAK»  
FANFARRIA  
HERRIAN ZEHAR  
IBILIKO DA  
GIROA ALAITZEN

Jai ederrak badagoz gure artean, Doniene jaiak ez da, beharbada, leba txikerrenekoa. Noz sortua dan ez dakigu. Noren omenez edo gomutaz be ez. Eguzkiaren udaburu ospatuteko, aurki. Antxin-antxina sortua dogu, Euskal Herrian kristautasuna sartu orduko sortua. Aurreko egunean, taket tantaia lekuri egokienean zutunduta iminten da eta ilundirantza haren inguruan metatutako bedar, sasi, ota, abar, ohol eta ganerakoei su emoten jake eta dantzaldiak ta ikotiak egiten dira. Egun horretan sutzar itzelak egiteko ekandua dogu Euskal Herrian. Oraintsu artean, Donienerako Bakion bizi-bizirik egon dan beste ekandu bat hauxe izan da, leizar abarrak ateetan imintekoa, afrontu eta trumoietatik jagon egiten ginduezalakoan. Doniene egunean gure etxeetan leizar abarrak iminteko ekandu hori, beste asko lez, zoritxarrez, galduz doa.

### Berbalapikoa

**leba**= garrantzi.  
**gomuta**= oroipen, gogo.  
**udaburu**= solstizio.  
**tantai**= luze-handi.  
**metatu**= batu.  
**ikoti**= salto, jauzi.  
**sutzar**= su handi.  
**ekandu**= ohitura.  
**afrontu**= ekatx.



«Atzo San Joan,  
gaur joan zan.»







«San Joan,  
jan-edanak joan.»



«San Joan zelan etorri, halan joan.»





# BAKIO BIAK ZELAN BAKIO BAKARRA EGIN ZIRAN

Bakio aitatukeran, Goikolea eta San Joanalde baserri bitartean daukagun herri honen inguruan dihardugula uste dogu, eta Bakio gaur egun lur eremu hori izanda be, gauzak ez dira beti horrelakoxeak izan. Ze, ez da ahaztu behar Zubiaur eta San Pelaio auzoak Bermeorenak zirana. Auzook, baina, aspaldi-aspalditik euken zergak eta kontribuzinoak batu eta administratzeko autonomia. Azken baten, eleizate bateko eskumenak eukezan eta praktikan, autonomoak zirala esan leiteke.

ondokoa zehatz eta luze arrazoituz: ez egoala Bermeo eta auzo bion arteko errepiderik, Bermeogino tarte luzea eukela, tartean makina bat mendi igaro behar ebela, etab. Eta, ganera, gehitu eben: *“Dificultades que se acentúan durante el largo invierno, con las acometidas de frecuentes temporales que, proviniendo del noroeste azotan este rincón de la Vizcaya”*. Eskakizun horren aldeko argudioetan be honakoak aiatu ebezan: eskola eta maisuen

zuhurtzia politika bizkorrenenaz jokatu eban. Ezer baino lehenago, Tortosan gotzain zereginetan ebilan Félix Bilbao bakiotarra herriko seme kutun izendatu eben. Horren ostean, alkateak gutuna bialdu eutson honakoa adierazoz: *“El Ayuntamiento de Bermeo por las influencias o juegos de malabarismos y habilidades en el nuevo trazado que presenta, no tiene otro fin que de hacer demorar la ejecución del real decreto Ley”*. Eta gutunari amaiera emoteko honakoa eskatu eutson: *“Nuestro deseo sería verla ejecutada la disposición dictada para ello nos encontramos en momentos de nuevamente pedirle con toda confianza vea de procurar se ejecute.”*



Gizaldi honen hasikeran, ostera, Aldundiak zergak kobratzeko ahalmena kendu egin eutsen auzo bioi eta Bermeoren pean ipini oso-osoan. Horrek haserre handia eragin eutsen herritarrei eta 1902an Zubiaur eta San Pelaio bizaerlerik gehienek Bermeotik bereiztea eskatu eben, Basigogaz bat egiteko. Bermeok ez eban hori onartu eta jokabide hori zapuztu eta, galazoteko ahalegin handiak egin ebazan, honako argudioak emonez: *“por la intromisión de elementos políticos ajenos al común interés de las partes”*.

Hogeita bi urte geroago, hau da, 1924an, Bakio Udalak lagunduta, ostera be ahalegin ziran Bermeotik banandu eta Bakio gaz bat egiten, sasoi haretako agirian irakurten dan moduan *“sería beneficioso y hasta cierto punto conveniente”* arrazoia azalduz. Eskakizun hori auzo biotako ia biztanle guztiek sinatu eben,

mantenua bertakoen kontura izatea, Bakio postaz zerbitzua, medikua, garraioa erabiltea, txakolin uzta Bakio biltegiara eroan eta bertan saltzea, Basigoko eleizkideak izatea eta, ondorioz, bertan bataiatu, ezkondu eta lurperatuak izatea.

Halan, eskari horreek guztiak kontuan hartuta, 1927ko urriaren 4an sinatu eta “Gaceta Madrid”en urriaren 6an argitaratutako Errege Dekretuak Zubiaur eta San Pelaio Bakiora anexionatu ziran.

Edozelan be, errege dekretuak oso argi inoan auzook aurrerantzean Bakio izango zirala, baina ez eban argitzen zeintzuk ziran mugak, ez eta munarriak be. Honer oratu eutson Bermeok anexionari, atzera be, oztopoak ipinteko. Horrelan, Bermeoko Udalak Auzitegi Gorenera jo eban erabagi horren kontrako errekurtsoa ipiniz. Dana dala, Bakio Udalak

Tortosako gotzainak, aurki, ahaleginak egin ebazan, eta, 1932.ean Auzitegi Gorenera tramitea gaindituta, Bakio alkateak eskerronak agertu eutsozan eskutitz bidez. Horrenbestez, 1932ko irailaren 10eko agiri baten amaieran honakoa jasoten zan: *“Los Barrios de Urkizaur y San Pelayo, es decir, desde el río Estepona ó Concha, se anexionaron a Basigo de Bakio, por Real Decreto de 1927 y a petición de los pobladores de dichos barrios, en contra de las aspiraciones de Bermeo, que recurrió hasta el Tribunal Supremo, y con el apoyo oculto pero decisivo de Felix Bilbao, entonces Obispo de Tortosa e “hijo predilecto de Bakio”*.

*Era alcalde Máximo Zabala, Concejales, Ruperto Ugarte, Francisco Jaureguizar, Francisco Uriarte, Fungencio Garai y Asensio San Pelayo. Secretario, Domingo Laucirica.”*

**Bakio AEK-k 1993ko abuztuan egindakoa. Lan taldea: Jonjo Agirre, Angel Zelaieta eta Idoia Liste. Joseba Terrerosek egokitu.**



# SAN PELAIO EGUNA 99

## bagilaren 26an

Egun eguzkitsu ta ez hotza izan genduan bagilaren 26an San Pelaio baseleizara hurreratu gintzazanok. Auzokorik asko batu zan baseleiza ingurura. Mezea eguerdiko 12.00etan hasi zan. Amaitu ostean, 13.00etan edo, jan koputxua emon euskuen inguruetan genbilzanoi. Ohiko txakolina eta gaitetz ganera, txorizo eta buzkantz erreak egon ziran danontzako jangai. Gosekil asko bazarretan! Bakioko txistulariak eta txalapartariak giroa berotuten ibili ziran mezea amaitutakoan. Bertsolariek euren txandeari oratu eutsoen eta han ibili ziran hiruna bertso saio kantetan. Ez daiguzan ahaztu Gernika ingurutik etorritako inpernuko hauspo jole gazteak, euren ekitaldia danon gogokoa izan zan-eta. Amaituteko, ahuntzerrikoek auzotarren arteko bazkariari ekin eutsoen, bertsolariak ta soinuariak arrastia alaituten Urizarreta inguruan ibili ziran bitartean. Bat edo batzuk belu be belu joan ei ziran etxera, aurki.




BAKIOKO UDALA  
(Bizkaia)

BAGILAK  
26  
DE JUNIO

**SAN PELAIO  
BAKION**

12:00 MEZA NAGUSIA SAN PELAION  
12:30 LUNTXA SAN PELAION  
13:00 BERTSOLARIAK ETA  
TRIKITILARIAK SAN PELAION  
18:00 TRIKITIXA ETA  
BERTSOLARIAK ENEPERI  
INGURUAN





# IBARRA



Argazkian ikusten dogun baserri zahar honek badauka beraren historia txikia eta oso interesgarria, ganera. Beharbada, batzuk jakingo dozuena, baten batek esanda edo hor nonon entzunda.

IBARRA, orduan "Ybarra" idatzita, oso dorre garrantzitsua eta entzutetsua izan zan. Espainiako Errege-Erregina Katolikoaren sasoian bota egin eben, hareen agindu bat zala eta. Orduan be, errekearen albo baten egoan, Santa Katalina ermitearen aurrean. Dorrearen hondakinak han egon ziran, 200 urte pasatu ta gero. Eta orain be, inguru ha "Torrea" lez ezagututen dogu. Dorrearen jaubetzapean egon ziran IBARRA GOIKOA ta IBARRA BEKOA baserriak eta orduan errotea zan TORREZAR.

Ibarra abizena oso entzuna da gure artean. Lehenengo eleiz erregistroetara joanda, han topetan doguz "Ibarra"-tarrei buruzko lehen aitamenak. 1580. urtean, baegoan Bakion Martin de Ybarra izeneko bat, Maria Perez (Petra) Albonigakoagaz ezkondua zana. Seme bi izan ebezan, gitxienez: Martin eta Migel.

Beste "Ibarra"-tar bat, Martin Abbad de Ybarra izan zan, Kareagako Martinagaz ezkondua zana. Euron alabea Marina izeneko zana. Eta holan beste "Ibarra"-tar batzuk be agertuko ziran.

IBARRA baserria, izenak berak esaten deuskun lez, orduko errekearen ibarran edo, beste era batera, errekaldean egoan kokatuta. Eta oraintsu arte be han egon da ia 400 urteko baserri ha, orain urte pare bat bota egin eben arte. Holan, besteko barik, Bakioko historia zati handia eta herri arkitekturearen eredugarria zana betiko joan jaku.

Baina izen toponimikoek badiraue aurrera. Hor doguz: IBARRA-BARRI etxea, TORREA etxea, TORREZAR baserria... danak "dorre" eta "ibarra" izenen inguruan dagozanak. Izan be, IBARRA dorre izan zan eta.

Anartz ORMAZA

**Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun, TXIRRITXOLAK  
lekutxu hau eskainiko deutsu.**




## UATEA ETA OSASUNA: HARETZAN GOGOAN HARTU BEHARREKOAK

Haretzan egoten diran ezbehar eta larriunerik gehienak gure ardurabakokeriearen ondorio izaten dira. Egin be, sorosleek iragarritako ohar eta aholkuei jaramon gitxi egiten deutsegu beti. Eta gero, gerokoak!

Ikurrin gorria goratuta dagoanean, orduan eta lagunik gehien ataraten dabe itsasoko uretatik. Hau da, itsasora sartutea galazota dagoanean, hatan be. Horregaitik, haretzara joaten diran herritarrek sorosleen esanak betetea behar-beharrezkoa da. Ikurrin gorria goian dagoala eta uger egiten doanari ezin leioe, sorosleek, uretan sartutea indarrez galazon, ikurrin gorria egon arren. Baina, gero, sorosleek, ganorabako ha uretatik atarateko, euren bizitza arriskuan imini behar izaten dabe.

Osasun Sailak, urtean-urtean, hainbat aholku emoten dauz haretzan arriskuak saihestu, edo behintzat, gitxituteko:



- Sorosleen aholku eta esanak bete.
- Ikurrin gorria dagoanean, ez sartu uretan.
- Ikurrin beilegiagaz, kontuz ibili eta zuhur egon.
- Uger egin ostean dutxatu.
- Ez lohitu haretzea.
- Marmokak dagozanean, kontuz ibili uretan.
- Eguzkitik azala jagon.
- Zauriak jagon.
- Uretara sartuteko neurriak hartu: astiro sartu,...
- Ez eroan haretzara eguzkiak hondatu leiken jakirik.
- Hatxetan ibilteko oinetako egokiak erabili.
- Kontuz eguzkisartuagaz: burukoa jantzi, ura edan.
- Toailea norberak bakarrik erabili.

## HERRIKO EKANDUAK JAIETAN 2



**SAN JON DOLOZTXU EGUNA** - Guda aurretik, San Jon Doloztxu egunean, eguerdian, sokako aureskua egiten zan Bakion. Ziriako Garai Ardantzako eta Raimundo Bilbao Aurrekoetxeko izaten ziran auresku eta atzesku, hurrengorik hurrengora. Tabernalden egiten eben sokako aureskua, herriko jaien barruan. Dantzari biok eskua alkarrerri emonda, lehenengo, aureskuak egiten eban

dantzan, gero atzeskuak. Ostean, andra bat ataraten eben eta hareri aureskuak egiten eutson dantzan. Hurrengoan, beste andra bat ataraten eben eta atzeskuak egiten eutson dantzan. Gero, herria, andra-gizonak bikoteka, artean sartuten zan, zapi baten bitartez sokan alkarrerri oratuta (guda ostean, barriz, zapi barik eskua alkarrerri emonda). Aureskuak eta atzeskuak, barriz, alboko andreari txapelaren bitartez lotuta egoten ziran. Atzeskuak eta aureskuak dantzaldi bana egin ostean, danok jota eta porrusaldea egiten ebezan. Gregorio Agirre Garaikoak be noz edo noz sokako aureskuan egiten eban, baita Ziriako Egia Egianekoak be.

### Berbalapikoa

**udate**= udaldi, uda sasoi.

**gogoan hartu**= kontuan hartu.

**ezbehar**= istripu, zoritxar.

**sorosle**= uretan edo haretzan arriskuan dagoanari lagunduteko dagoana.

**aholku**= burubide, gomendio.

**galazon**= eragotzi, debekatu.

**saihestu**= baztertu, alboratu.

**marmoka**= hazkura handia emon eta aterkinaren anterea dauan itsas piztia.

**jaki**= jateko, janari.

**eguzkisartu**= berosartu, intsolazino.

**toaila**= oihal, xukadera.



# 1.-ZELAN DAUKA IZENA ITURRI HONEK?

## 2.- NON DAGO?



Erantzunak badakizuz, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea irailaren 10ean amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia.

Erantzunak igarriko dabezanen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

**Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan**

Arteragokoaren erantzun zuzenak:

- 1.- «Andra Mari eleiza nagusian»
- 2.- «Aitaren lanetan jardun behar dot»



Irabazlea: **Ander Ormaza.**

Amen dozuez **Ander Ormaza** eta bere andrea TXOBERNE tabernan afaria mauka-mauka jaten.

**«Ezkundu arte larri, gero baragarri.»**

# TXOBERNE

Benta Alde, 148  
48130 BAKIO

Berton-bertokoa gozatuteko  
leku aproposa  
Bakioko txakolina, sagardaoa  
eta jateko giro ezin hobiauan

Tfno.-zkia.: 94 619 41 81



# ZAHARRAK BARRI



Daborduko, zehaztasunetan hasi gara. Orain arte, Bakioko alde orokorrak aurkeztu deusueguz. Bai!, argazki orokorrak edo hiru-lau etxe agertuten dabezanak. Oraingo honetan, etxe bakarra dogu aztergai: **ARRANBEL** izeneko. Ikusten danez, eta ezagutuko zenduenez, etxe hau Quinta Torrerantzako bide ondoan dagoan etxetxua da. Aspaldian, kasinoa izan ei zan (argazki zaharrea agertuten dan moduan). Ziurrenik, orduko familia handikiak edo hara joango ziran jokaturera edo postura egitera. Baina aspaldiko gauzak dira horreek. Argazki barrian ikusten dozuenez, aldaketa txiki batzuk izan dauz etxe horrek, eta baita beraren inguruneak be. Ikusten dogun ingurune txikian, gaur egun, Quinta Torre ez dana osorik ikusten konturatu geintekoz, artean etxe barri bat dagoalako. Halan ta guztiz be, aldaketea ez da hain nabarmena izan.

Orain badakigu, belaunaldi gazteek, behintzat, etxe horrek badaukazala urte mardoa eta baita historia txikia be.

**Anartz ORMAZA**



**GAZI-GAZA:**

-Zeintzuk dira osatuezineko gataxak?  
-Minbizia, ganorabakokeriea eta zorrak.

**«Lapurra, lapurren bildur.»**



# Alaitasuna Pilota Taldeagazko alkarrizketea

Oraingoan, gure alkarrizketako txokoa betetea ALAITASUNA pelota taldeari tokatu jako. Horretarako, Juan Karlos Uriartegaz egon gara berbetan, bera da-eta ALAITASUNAKo arduradunetarikoa bat. Honeexek izan dira ba, han entzundako berbak.

**TX:** Noiz eta zelan sortu zan ALAITASUNA?

**JK:** Ba, 1990. urte inguruan izan zan eta deia udaletxetik etorri zan Kepa Uriarte zinegotziaren bitartez. Pelota munduan genbilzanoi pelota taldea herrian sortzea proposatu euskun eta udaletxean bertan horretarako batzartu ginan. Gu pelotaren inguruan asko ibiltzen ginan, baina inoz ez jakun kirol talde lez antolatzea bururatu.

**TX:** Nortzuk ibili zinen hasikerako momentu horretan ?

**JK:** Hor egon ginan, ba, Jorge Busturia, Altzagako Jesus Mari, Larrondoko Jabier, Imanol Larrazabal eta ni neu. Kepak ekarri euskuzan estatuto batzuk eta horreekaz hasi ginan beharrean.

**TX:** Gaur egun nortzuk dabilz beharrean?

**JK:** Orain gehien gabilzanok, Igor Lopategi, Aritza Ormaetxea, Egoitz Abio, Landabasoko Jesus eta neu. Batzuk gaztetxuen entrenatzaile lez eta beste batzuk laguntzaile lez.



**TX:** Zenbat pelotari gazte dabil olgetan? Ba dago zaletasunik?

**JK:** Zaletasunari eustea kostatu egiten da, baina badabilz batzuk neguko eskolarteko txapelketetan parte hartzen. Ba, esate baterako, benjaminetan, zortzi eta bederatzi urteko mutil eta neskatok dabilz eskuz olgetan. Gero, badagoz alebinak, infantilak eta kadeteak palara olgetan dabenak.

**TX:** Urtearen barruan zeintzuk txapelketa antolatzen douez?

**JK:** Herriko jendearen parte hartzea helburu dabenak dira, gehienbat. Holan ba, neguko gomazko pelotagazko pala txapelketa, hogeita lau orduak palara olgetakoa, eta eskuzko

binaka eta banakakoa. Gero, horretaz aparte, udako narruzko pelotagazko pala txapelketa, beste herri batzuetatik be jendea hona etorten jakula. Bagilean zehar, barriz, Euskadiko Pala Laburreko Txapelketa olgatu izan da, estatu mailako pelotaririk onenak bertan euki doguzala, profesionalak izandakoak, mundialetan ibilitakoak...

**TX:** Azaldu eiskuzu apurtxu bat zer izan dan txapelketa garrantzitsu hori, mesedez.

**JK:** Txapelketa hori Euskadiko Pelota Federakuntzak eratu izan da eta Bakioko Udalaren babesa izan dau. Araba, Nafarroa eta Gipuzkoatik etorritako pelotazale asko izan dira ikusle bertan. Esan behar be, barrikuntzarik handiena 12 tantuko bost joko (lehen, 40 tantuko batera olgatu izan da beti) olgatu behar izan dabezala izan dala, horretarako hiru egin ezkerroan, irabazle. Sistema barri hau sano eztabaidagarri izan arren be, pelotarien artean motibazio handiagoa eragin izan dau eta ikusleentzat interesgarriagoa izan da. Dana dala, sistema hau ez da oso-osoa barria, Nafarroako txapelketan antzeko gauzaren bat eginak dira eta.

**TX:** Beharizanik edo badozue zeu-on beharra beteteko?

**JK:** Argi dago daukagun arazorik larriena frontoiaren mantenimendua dana. Neguan ura nozgura sartzen da eta batzuetan pelotariei gedar egin behar izaten jake etorri ez daitezkan. Gauza politikak egin leitekez, baina ez

daukagu ziurtasunik, neguko txapelketak kendu egin beharko dira, azkenean. Behar-bada, kantxero bat imini beharko litzake frontoiaren mantenimendua eta alokatzea berak erroteko.

**TX:** Zein da zeuentzako aurrerantzerako helbururik nagusiena?

**JK:** Gure helbururik nagusienak jendeak pelotan olgetako zaletasunari eustea da, gure herriaren betiko kirola dalako, eta frontoiak bete behar dauazan funtzinoak indartzea.

**TX:** Ba beste barik, ba, jarraitu zintzo-zintzo beharrean eta hurrengora arte.

**Unai BEITIA**

## Flashak!!

### ESKOLAKO GURASOEN ALKARTEA

Eskolako gurasoak jo ta ke ibili dira joandako bagilean. Zertan, eta herrigintzan. Aor, osterantzean, eskolako seigarren mailako ikasleei, datorren urtean bertotik kanpo ikasi behar izango daberen herriko umeei, egindako agur-jai gogoangarria. Herriko ume guztientzako olgetak eta jokoak izan ziran han, baita guraso eta ikasleen arteko partidua, antzerkitxu bat, eta abar... be. Beioake hemendik agurtuei etorkizunerako gure guraririk onena. Aor, beste aldetik be, gurasoak eurok be eraturako San Joan Sua eta horren inguruko sardin erreak, umeentzako olgetak, andra-gizonen arteko sokatira aupadea eta guzti. Aor be, Gipuzkoako Azeitira egindako osterea, Burdinbiderearen Euskal Museoa ikusteko, lurruntrean ibilteko,... eguna ondo emoteko. Urte askotan!



### ITXAS-ALDEREN ALBISTEAK

Azkenengo hileetan, hainbat ekitalditan hartu izan dabe esku ITXAS-ALDEKook: ezkontza askotan, Bizkaiko eta Euskal Herriko Dantzari Egunean, Busturialdeko Dantzari Txikien Jaian eta Donibane Lohizuneko Udabarriko Jaian. Garagarriaren 30ean, Udalaren eta Portugaleteko ELAI-ALAI dantza taldearen laguntzaz, ITXAS-ALDEKook urteroko Nazinoarteko Folklore Jaialdia eratu izan dabe Bakion, horretarako Frantzia, Quebec eta Txiletik dantza talde bana ekarri dabela. Bakiotarrak, barrian, parra-parra agertu izan dira dantzaldira eta euren txalo beroek gualdiaren arrakastea argi be argi itzi izan deuskue. Beste alde batetik, Andra Mari Egunean, urtero lez, meza nagusiaren osteko eta ilundiko dantza emonaldiak izango dabez urte osoko ekintzarik nagusien. Bertan, soinu eta irudi barriak eskaintzeko asmotan dabilz eta horretarako, danon ahaleginak biderkatu egingo dira, emonaldiak herritarren gogoko izan daitezkan. Hörron ostean, oporrak etorriko jakez, urrian entsaietan barrian hasi artean, behintzat.



### BAKIOKO ABESBATZA

Garagarriaren 24an, Mungiako Abesbatza eta Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoagaz batera, Josu Loroñoren zuzendaritzapean, Jesus Guridiren "EUSKO IRUDIAK" eres-lana abestu eben abesbatzakook Bakioko Musika Astean. Arrakasta handia jadetsi eben. San Inazio bezperan be, garagarriaren 30ean, eres-lan berbera Ondarroan abestu eben, egundoko txaloak jaso ebezala.



# NON ITZI DABE EUSKEREA? ZERTAN DAQOZ, BA?



## BAKIO

### Concierto Benéfico

A FAVOR DEL ORFANATO *BJELAVE* DE SARAJEVO (BOSNIA  
EN COLABORACION CON LA ASOCIACION MAITASUN

*Juan Luis Anasagasti*

Tenor

*Jaime L. de Butrón*

Piano

1.<sup>a</sup> Parte Canciones vascas

2.<sup>a</sup> Parte Canciones italianas

ENTRADA LIBRE

## LA CAPILLA

17 de julio, 19:30 h.

SE VA A PROCEDER A LA  
RECOGIDA DE PAGINAS  
AMARILLAS  
CORRESPONDIENTES AL AÑO  
97/98 PARA SUSTITUIRLAS POR  
LAS ACTUALES 98/99.

SE RUEGA DEPOSITEN LAS  
ANTIGUAS EN EL PORTAL, PARA  
SU POSTERIOR RECOGIDA.

PERDONEN LAS MOLESTIAS.

¡¡SI QUIERES VERLE ANTES DE LOS FESTIVALES  
DE GAZTEIZ Y DONOSTI, NO TE LO PUEDES PERDER!!

★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★

# MALCOLM SCARPA

## EN CONCIERTO (JAZZ-BLUES)

★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★

DISCOTECA GABBIANO (BAKIO)  
MIÉRCOLES 17 de JULIO  
22:30 h. ENTRADA GRATUITA



ENTE PÚBLICO EMPRESARIAL CORREOS Y TELÉGRAFOS  
JEFATURA PROVINCIAL DE VIZCAYA

### CONTRATACIÓN TEMPORAL

Se encuentran a disposición de quienes puedan resultar interesados en la totalidad de las Oficinas de Correos y Telégrafos de esta provincia, las bases y modelo de instancia para solicitar la inscripción en diferentes Listas de Espera de contratación temporal dependientes de esta Jefatura Provincial.

El plazo de presentación de instancias finaliza el día 15/12/1998.

EL BATXOKI DE BAKIO TIENE EL  
GUSTO DE INFORMARLES DE SU  
RECIENTE APERTURA.

ESPECIALIDAD EN:

- \* PINTXOS VARIADOS
- \* MENU DEL DIA
- \* MENU ESPECIAL FIN DE SEMANA
- \* PLATOS COMBINADOS

ESPERAMOS SU VISITA

Urtero-urtero ikusten doguz horrelakoak. Udea etorri ta blaust!, perretxikoak lez agertuten jakuz erderazko kartel arrotzak. Ez ete dakie Bakio herri euskalduna danik, ala? Ba, sartukeran argi ta garbi dakar: **BAKION ERE EUSKERAZ!** Ba, holan eta guzti be, bapez. Itsukeria-gorreri hori kenduteko gatxa be gatxa egiten jake, aurki. Edo gugaineko errespeturik eza da? Bakiora etorri eta euren kartel erdaldunez gure herria hartu, holangorik! Inglesez hurrengo errefrau hau esaten da: “do as people do”. Edo euskeraz: zoazan lekura zoazala, bertakoakaz bat egin!



# BAKIOKO EUSKEREAA-VI

**Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !**

**Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,**

- zelan idatzi behar dan: “amagine noa”
- Bakion zelan esaten dan: “(amañe noa)”

## -AGAINÉ/-AKAINÉ

Goiko atzizkiok, -AGANA/-AKANA<sup>(1)</sup> honeen bardinantzekoak dira. Idazterakoan batzuk eta besteen artean alde handirik ez badago be, berba eginkeran bai, ostera. Goikoak ez dira Bakion bakarrik erabilten, Bermeon, Fruizen,... be bai, baina guztiz berezkozat hartu behar doguz, gure gureak diralako. Bakioko euskeran bakiotarrek eurrez erabilten dabez eurok, behin be huts egin edo bigarrenakaz nahastatu barik. Atzizkion kasua deklinabideko ADLATIBOA deritxona da, bizidunena, hatan be.

## NOGAINÉ? (NOREIÑÉ?)

<u>Mugatubakoa</u>	<u>Mugatu SN.</u>	<u>Mugatu PL.</u>	<u>Mugatu hurkoa - PL.</u>
alabaGAINÉ (alabaiñé)	alabEGAINÉ (alabieñé)	alabAKAINÉ (alabakaiñé)	alabOKAINÉ (alabokaiñé)
semeGAINÉ (semeiñé)	semeAGAINÉ (semeiñé)	semeAKAINÉ (semeikaiñé)	semeOKAINÉ (semeikaiñé)
zaldiGAINÉ (saldiñé)	zaldiAGAINÉ (saldidxeiñé)	zaldiAKAINÉ (saldidxekaiñé)	zaldiOKAINÉ (saldidxokaiñé)
oiloGAINÉ (oilloiñé)	oiloAGAINÉ (oilloaiñé)	oiloAKAINÉ (oilloakaiñé)	oiloOKAINÉ (oillookaiñé)
medikuGAINÉ (medikuiñé)	medikuAGAINÉ (medikueiñé)	medikuAKAINÉ (medikueikaiñé)	medikuOKAINÉ (medikuokaiñé)
txakurrEGAINÉ (txakurreiñé)	txakurrAGAINÉ (txakurreiñé)	txakurrAKAINÉ (txakurreikaiñé)	txakurrOKAINÉ (txakurrokaiñé)

Bizidunen izenak be MUGATUBAKOAN deklinetan dira, berbarako:

MartaGAINÉ (Martaiñé) - BasiliaGAINÉ (Basilidxeiñé) - AneGAINÉ (Aneiñé) - MariGAINÉ (Mariiñé) - EnekoGAINÉ (Enekoñé) - JosuGAINÉ (Josuiñé) - MirenEGAINÉ (Mireneiñé) - LuisEGAINÉ (Luiseiñé)... edo amaGAINÉ (amañé) - aitaGAINÉ (aitxeiñé) - izekoGAINÉ (isekoiñé) - osabaGAINÉ (osabaiñé) - anaiaGAINÉ (anaidxeiñé) - arrebaGAINÉ (arrebaiñé)...



Beste batzuk:

niGAINÉ (*nireiñe*) - zuGAINÉ (*sureiñe*) - haGAINÉ (*areiñe*) - guGAINÉ (*gureiñe*) - zuEKAINÉ (*suekaiñe*) - hareEKAINÉ (*aiekaiñe*) - neuGAINÉ (*neureiñe*) - zeuGAINÉ (*seureiñe*) - beraGAINÉ (*beraiñe*) - geuGAINÉ (*geureiñe*) - zeuEKAINÉ (*seuekaiñe*) - eurAKAINÉ (*eurekaiñe*)

edo

honEGAINÉ (*oneiñe*) - horrEGAINÉ (*orreiñe*) - haGAINÉ (*areiñe*) - honeEKAINÉ (*oneekaiñe*) - horreEKAINÉ (*orreekaiñe*) - hareEKAINÉ (*aiekaiñe*)

edo

noGAINÉ? (*noreiñe?*) - nortzuEKAINÉ? (*nortzuekaiñe?*) - zeinEGAINÉ? (*seiñeiñe?*) - zeintzuEKAINÉ? (*seintzuekaiñe?*) - nor edo noGAINÉ (*nonoiñe*) - batEGAINÉ (*bateiñe*) - batzuEKAINÉ - (*batzuekaiñe*)...

(1) edo baita -ARENGANA/-ENGANA be.**BERBARIK BERBA:**

Arlo honetan Bakioko euskereak dauan nortasun lexikala (berbak) agertu gura dogu. Askotan, beste euskera eredu batzuen interferentziaz (gipuzkerearenaz, batez be) gurea ostenduta eta itxuragalduta lotuten da, jakin barik euskera baturako be guztiz erabilgarria dana.

**BAKION**


<b>BAKION</b>	<b>Beste leku batzuetan</b>
amaitu ( <i>amaitxu</i> )	- bukatu, finitu
ahalegindu ( <i>alegindxu</i> )	- saiatu
aitatu ( <i>aitxetu</i> )	- aipatu
alkartu ( <i>alkartu</i> )	- elkartu, bat
arteztu ( <i>artestu</i> )	- zuzendu
atara ( <i>atara</i> )	- atera
autortu ( <i>autortu</i> )	- aitortu
banandu ( <i>banandu</i> )	- banatu
batu ( <i>batu</i> )	- bildu
berba egin ( <i>berba ein</i> )	- hitz egin, mintzatu
bialdu ( <i>bialdu</i> )	- bidali, igorri
eroan ( <i>eroan</i> )	- eraman
galazo ( <i>galason</i> )	- debekatu, galerazi
gura izan ( <i>gure ixen</i> )	- nahi izan
gurago izan ( <i>gurau ixen</i> )	- nahiago izan
ebagi ( <i>ebai</i> )	- ebaki
edegi ( <i>idi/iri</i> )	- ireki, zabaldu

**BAKION**


eritxi ( <i>eritxi</i> )
-ri eritxi ( <i>-ri eritxi</i> )
euki ( <i>oki/okin</i> )
-tan ibili ( <i>-tan ibilli</i> )
igan/igon dot ( <i>idxen dot</i> )
igarri ( <i>igerri</i> )
imini/ipini ( <i>imiñi</i> )
itxaron ( <i>itxedon/itxon</i> )
itzi ( <i>itxi/itzi</i> )
izena euki ( <i>isena oki</i> )
jagon ( <i>dxagon</i> )
jausi ( <i>dxekusi</i> )
jesarri ( <i>dxesarri</i> )
lohitu ( <i>loitxu</i> )
olgatu ( <i>olgeu</i> )
urten dot ( <i>urten dot</i> )
zutundu ( <i>sutundu</i> )

**Beste leku batzuetan**

- deitu, izena euki
- ri iruditu, -ri begitandu, -ri iritzi
- eduki
-tan ari izan, -tan jardun, -ri eragon
- igo naiz
- antzeman, asmatu
- jarri
- espero
- utzi, laga
- deitu
- zaindu
- erori
- eseri, jarri
- zikindu
- jolastu, jokatu
- irten det/naiz, atera naiz, jalgi naiz
- zutitu



Iniaki MARTIARTU







## HERRIKO EKANDUAK JAIETAN 3

**SAN JON DOLOZ EGUNA** - Jon Bateatzaileari samea ebagi eutso-ela-eta, antxineko ekanduari jarraituz, jai egun hori abuztuaren 29an egiten da Urizarretako (orduak Oruezarreta) zelaietan. Agiri zaharretan esaten denez, 1.495. urtean sortu ei eben San Jon Doloz eguneko lehenengo erromeria Urizarretako zelaietan. XVII. gizaldiaren erdirantza erromeri hori sano sustartuta egoan inguruetako biztanleengan. Ordurako be, Bermeoko udala urtero

joaten zan egun horretan Gaztelugatxera, hango jaubetzea hartuteko. Bertako eleizan mezea entzun, han egozan gauzen inbentarioa (daukagunik eta zaharrena 1.645. urtekoa da) egin eta Urizarretako erromerira joaten ziran eguna emoten. Geroago, 1.927. urtean San Pelaio auzoak Bakiogaz bat egin ebanetik, Bermeoko eta Bakioko udalak urtero alkartu izan dira inguru haretara, ugartearen jaubetzea bermeotarrena dana ezagututeko. Ostean, herri biotako udalkideek lagunen arteko bazkaria egiten dabe Urizarretan.

## PASTORAL BI XIBEROAN

Aurten be, pastoral ikaragarri polita antzeztuko dabe Xiberoan Altzai-Lakarri herrietako herritarrek, Junes Casenavek idatzitako **AGOTA** deritxon pastorala, hatan be. Emonaldiok datorren abuztuaren 1ean eta 8an, domekaz, Altzai-Lakarrin izango dira.

Ez da, baina, aurtongo pastoral bakarra. Jokatu be, beste pastoral bat jokatu dabe Urdiñarbeko herritarrek, Etxahun-lrurik egindako **IPARRAGI-RRE** izenekoa. Irailaren 26an eta urriaren 3an, Xiberoako Urdiñarbe herrian.



eritxia

Filma

## FLORES DE OTRO MUNDO



Xumea bezain aberasgarria dan historia honetan pertsonaiak benetakoak zein hurbilak dira. Film errealista honetan pertsonaiak ardatz bihurtzen dira eta argudioaren bidez, gizon bila doazen emakumez gainezkaturiko autobus baten agertzen gara bidaiatzen. Gaztela barruan, edonondik urrun

dagoan herrixka bateraino.

Film honek etorkizunari uko egin eta itxi-itxita bizi dan nekazaritza gunearen ikuspegia eskaintzen deusku. Bertan gizona nagusia da eta indarrak baliatzen da, beraren erispidea eta bizimodu eroso ezarteko, inguruko errealitatea zahartu eta jausi egiten jakon bitartean. Hain da itxia gizarte horren egitura, ze errana/amaginarreba, baltza/zuria, ama bertan-behera-itzia/tradizinozko senar-emazte dikotomiak behin eta barriz sendo agertzen dira.

Itxaso URAZURRUTIA

## Musikea INSHALA!



Edota gure bada, itxaropena. Berau da-eta arabiar berba horren esangurea. Alaitz Telletxea eta Maider Zabalegi, Alaitz eta Maider bikote oiartzuarraren lan barria doinu freskoz beterik dator, lehenengo diska ederrari segida emonez. Erritmo barriak sartuz, berba arinak nahiz sakonak maitasunez tartekatuz, gustagarri egingo jatzuela egingo neuke postura.

Jonjo Agirre

*Eskerrik asko etorteagaitik!*



**KAFETEGIA**

Benta Alde, 75  
Bekabarri  
Tfnoa.: 94 619 40 59

*Sabin'en  
Jatetxea*

Benta Alde, 72  
Estibaliz  
Tfnoa.: 94 619 40 41

**48130 BAKIO**



## SORGINAK (Euskal ipuin zaharra)

Antxina baten, Euskal Herrian sorginak bizi ei ziran.

Atso zahar sorginek sutondoan ostuta lapikotxu bat eukiten ei eben saguzahar, suge, txantxiku eta gautxorien koipez beteta.

Koipe honetaz soina eta oinak igurdita, erratz ganean haizetan hegaz, Akelarrera joaten ei ziran, hurrengo hau esanez:

«Laino guztien azpitik,  
sasi guztien ganetik.»

Sorginen batzarrak akelarran bariku gauetan izaten ziran.

Inpernuko deabrua berbera zan, aker baltz baten antza hartuta, sorgin guztien buru.

Batzarra hasteko, sorginek bira-biraka zoratu artean dantzan egin ostean, banan-banan Aker Baltzari atzekaldean, eperdiko zuloan, mun bat emoten eutsoen. Gero, Aker Baltza lautxakurren jarrira, sorgin batek, haren bizkar ganean, Meza Baltza emoten eban. Meza erdian sorgin guztiek mihin lohiaz, Gurutza Deunaren aurka itzelezko biraoak esaten ebezan.

Aker Baltzak, azkenean, bere suzko eta kezko aulkitik sorginei berbaldi luzea egiten eutsen, kristinau zintzoei zelan kalte egin erakutsiz.

Goizaldean, oilarrak kukurruku jo baino lehen, sorginak etorri ziran lez, erratz ganean, nor bere herrira bihurtuten ziran, okerkeriak egitera bihurtu be.

Behinola baten, baegoan Berastegiko herrian (Gipuzkoan) ume bat izan eban andra bat. Bazan ume ha sagar lorea baino ederragoa!

Berastegin be atso sorgin bat bizi zan, baina sorgina zanik inork be ez eutsen susmo txarrik hartuten.

Sorgin ha, euli antza hartuta, giltza zulutik, umea lotan egoan lotokira sartu ei zan, eta umearen agotik sartuta, ito egin eban. Berastegin guztiek, umetxua berezko gatxez hil zala uste izan eben.

Baina, atsoa sorgina zana hona hemen zelan jakin eben.

Behin baten, Berastegiko etxeokandra bat gauetz sutondoan goruetan jesarrita egoan. Gauerdian, bat batean, katu baltza kezulotik behera etorri jakon. Emakumea ikaratu egin zan eta hurrengo goizean beraren gizonari aurreko gauean zer ikusi eban esan eutsen.

Hurrengo gauean, gizona, andrearen soinekoak jantzita, sutondoan goruetan hasi zan.

Aurreko gauerdian lez, kezulotik katu baltza jatsi zan, baina katuak gorulariari bizarretan andrazkorik ez zana igarri eutsen. Orduan, bada, katu baltzak holantxe esan eutsen:

- Ene! Gizona eta goruetan?

Eta gizonak burduntzia katu baltzari jaurti eta erantzun eutsen:

- Ene! Katua eta berbetan?

Eta katu baltzari burduntziaz bernazurra hausu eutsen.

Biharamonean goizean, atso sorgina Berastegin, bernazurra hausita, herrenka ezin ibiliz, kalean agertu zan.

Holan, herritarrek atso ha sorgina zana jakin eben eta egin ebazan txarkeria guztien ordez Berastegiko enparantza erdian erre egin eben.

Hori holan izan bazan,  
sartu daitela kalabazan.  
Eta urten daijala  
Urguruko plazan.

Iniaki MARTIARTU

## IGURIAKO BOLUAN (J. Kerexeta)

Iguriako boluan  
ehundaka sorgin gauean;  
Iguriako boluan,  
dantza dantzari kantetan.

Iguriako boluan  
hamaika sorgin gauean;  
Iguriako boluan,  
dantza dantzari kantetan.

Hareek bai gorputz arinak,  
arpegi argi, oin bizkor!  
«Klin, klon, klin ta klan soinuaz  
ekiok hik, bolu gogor.»

Aldameneko lerdioan  
mozolo zaharren kurrinkak;  
ta Goikoetxe hegalean  
hontzearen erantzunak.

Argi dizdirak aidean,  
hegaka suzko anderak,  
Anbototik beherantz gorantz...  
errota ondoko dantzak!

Anbotoko Anderea  
batzarre-buru nagusi;  
bolu ondoko zelaian  
sorgin-oztea nabasi.

Sorgin gaua dona, itxuraz:  
ilargi bete, ozkarbi;  
izarrak dizdiz, haizea  
lotan... Hau gau zoragarri!

### Berbalapikoa

**txantxiku**= apo, zapo.

**soin**= gorputz.

**erratz**= isats, inarra, eskoba.

**mun**= buruan izan ezik, gorputzaren edozein lekutan emoten dogun musua; buruan ermon ezker, musu esaten jako.

**lautxakurren**= lau hanken ganean.

**birao**= berba zantar, madarikazino, gordinkeria.

**-eri susmo txarra hartu**= nonorengan uste onik ez izan, susmatu.

**goruetan egin**= ardazketan egin, haria egin.

**gorulari**= goruetan egiten dauana.

**hausi**= apurtu.

**biharamonean**= hurrengo egunean.

**herrenka**= trinkili-trankala, trinkilika, koxuka.

**enparantza**= plaza.

**bolu**= errotari bien artean azpikoa dogu.


**lerdoi**= pinudi.

**kurrinka**= txarriak egiten dauan zaratea. (Hemen, baina, mozoloak)

**andera**= dama. (Anbotoko Anderea)

**nabasi**= nahastutako, nahasi.

## BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA



**MONZÓ**, Quim:  
*Gauza guztien zergatia*.

Hogeita hamaika ipuinek osotutako liburu hau da Quim Monzó idazle kataluniarren idazlanik ezagunena. Ipuin bakotxean, istorio harrigarri edo bikain harilkatutako kontakizun bat dago. Eguneroko bizitzako pertsonaia eta egokierarik arruntak aukeratzen dauz eta umore deformatzailea ixuriz, barregarri bihurtzen dauz hareek.



**FILIPOVIC, Zlata: Zlataren egunkaria.**

Hain ezaguna dan Ana Frank-en egunkariaren modura, setiatuiko Sarajevon, eguneroko bizitza eta sentimenduak isladatuz, neska baten ikuspuntutik gerraren ankerkeriaren barri izango dogu liburu horretan.



**ETXAIDE, Yon: Gorrotoa lege.**

Butroe eta Abendañoako jauntxoak alkar txikitu beharrean dagozala eta heriosu-harrezko buruketan dabilzan artean, Jaun Matxin Olasoko altxatuko da basakeriaren erdian.

Liburu honeek Kultur Etxeko liburutegian irakurgai daukazuz. Erdi gurera!



# NOAINGO GUDUKETEA - 1521

1512. urtean indarrez sartu eta hartu eban Nafarroa osoa Gaztelako erregea zan Fernandok. Julio II.a Aita Santuak emondako guzurrezko bulda batez baliatuta, Alba dukearen angintearen pean bialdu eban itzelezko gudarostea Nafarroa azpiratuteko. Ibili be, aspaldian ebilen Fernando Guzurrontzia (Espainia aldean "el Katoliko" dalakoa) Nafarroa jan guran, Leringo konde doilorrari lagundu behar utsolakoan. Nafarroako errege-erreginek, Katalina eta Joan, Biarnora egin behar eben ines. Euren lurraldea barrian irabazteko hiru ahalegin handi eginda be, ezin izan eben inoz ha osorik atzera birreskuratu.



Horreetariko azken ahalegina 1521. urtekoa izan zan. Hareen seme eta oinordekoa zan Enrike II. Albretekoa sartu zan gudaroste handi bategaz Nafarroa birreskuratuteko asmotan. Nafarroa Beherea eskuratu ostean, Iruñerantza jo eban. Baina, 1521eko bagilaren 30ean Noaingo zelaietan nafar eta espainiarren arteko izan zan burruka handian huts egin eben eta Enrike II.aren asmoak bertan behera itzita lotu ziran. Asparroseko jaunaren angindupean egoan Nafarroako gudarostea. Asparrosek, gudari gitxi euki arren, ez eban laguntzinoa heldu artean itxaron eta, besteko barik, erasoari ekin eutson. Baina Gaztelako gudarostea askoz be indartsuagoa zan eta errez irabazi eutson Nafarroakoari. Han, Noaingo zelaietan, 6.000tik gora nafar abertzale lotu ziran hilda. Hori zala eta, Gaztelako erregeak Nafarroa osoa ostu eta jan ahal izan eban. Nafar abertzaleen erresistentzia, baina, Baztango Amaiurko Gazteluan 1522ko garagarrian amaitu zan. Amaiurren, Nafarroako azkenengo berrehun bat zaldun zintzok eutsi eutsoen arerioari. Eurok, ezelango laguntza hartu barik, azkenean, amore emon behar izan eben eta Nafarroa osoa, Garaia eta Beherea, espainiarren menpean lotu zan. 1527. urtean Espainiako Karlos I.ak Nafarroa Beherea itzi eban eta Nafarroako erregea zan Enrike II.aren menpean lotu zan atzera.



Jazokera hareek agoz gora iruli eta baldintzatuko eben Nafarroako gizarte eta euskerearen etorkizuna. Hareek ondorio kultural, sozial, ekonomiko eta politikoak ekarriko ebezan. Euskal Estatuak, Nafarroa, independentzia galdu eban-eta. Etorkizun ankerraren hedoi baltzak han-hor-hemenka zabalduko ziran

Erreinu zaharreen zehar, gaur arte.

Amaiurko gazteluko jauna, Jatsuko jauna, Xabierreko Frantziskoren aita izan zan. Aitagaz batera, Frantziskoren anaiak be egon ziran bertan.

Laukizko LAUAXETA olerkari handiak gudari abertzale haren omenez hurrengo olerki sakon eta sarkorra egin eban hil aurretik:

**Iñaki MARTIARTU**

## AMAIUR GAZTELU BALTZA

Amaiur gaztelu baltz hori -berrehun gudari oro sumin-zaintzen zaituen zaldun onek Nafarra-aldez egin dabe zin.


Iskilu gorri zenbat gazte bildurbako menditar lerdin. Eta horreek, Jatsu jaun horreek, Xabierreko zaldun guren.

Ikurrin bat -kate ta lili-dorre goitian zabal dago. Bera salduko dauan semerik mendi honetan ez da jαιο.

Amaiurko atezain horrek zidar turutat oihi eik. Baztan ibarran zenbat etsai, arrotz bage ez dago mendirik!

Hesiturik Amaiur dauka Mirandako konde espainiarrak Horeek bai burnizko janzkiak, ta urrezko ezpata-sagarrak!

Berekin dator, bai berekin, Leringo eta horren semea. Txakur txarrek jango al habe, herribako zaldun dongea.



Goiko aldetik hasten dira hasten dira suhaga hotsez. Horma kontretan zenbat zurgu eta gezi zorrotzak airez!

Baina dorrean zabal dabil ikurrin bat -kate ta lili-nork zapaldu ete daikez berrehun gudari orok zoli?

Amaiurko gaztelu baltza -jausi jatzuz dorre goitiak-. Baina arrotza, ez hadi geldu, nafar seme dira guztiak.

Harresi gorri, zubi hausi, -zein gitxi diran zaldun horreek-. Herio, samurño zakiez aberrimin baitabilz eurek.

Mirandako konde gaizto horrek jo eizuz zidar turutak. Ikurrin bat -kate ta lili- ez dau laztanduko haizeak.

Berrehun gudari oro sumin gaztelu pean dagoz hilik. Ordutik hona -zenbat laino-, Nafarroan ez da aberririk.

### Berbalapikoa

**bulda**= Aita Santuaren parkazinoa edo baimena.  
**gudaroste**= armada.  
**doilor**= zital, anker, bihozbako.  
**ines egin**= hanka egin, ospa egin. (Bakioko erara)  
**birreskuratu**= galdutakoa atzera irabazi.  
**oinordeko**= gurasoen ondorengoa.  
**bertan behera itzita lotu**= pikutara joan.  
**zaldun**= erregearen jauntxia.  
**arerio**= etsai.  
**amore emon**= etsi, errenditu.  
**jazokera**= gertaera.  
**baldintzatu**= baldintza pean egon.  
**anker**= bihozbako, doilor.  
**oro**= guztiz, erabat.  
**alde egin**= -ren alde egin, defendatu.  
**iskilu**= arma.  
**lerden**= itxura oneko, dotore, txairo. (gizonak)  
**guren**= onen.  
**goiti**= handi, garai.  
**turuta**= tronpeta.  
**hesitu**= inguratu, setiati.  
**ezpata sagar**= ezpatearen kirtena edo eskutokia.  
**donge**= txar, gaizto.  
**suhaga**= kainoi.  
**zurgu**= egurrezko esku-eskilarea.  
**zoli**= kemen, adore.  
**geldu**= zurtz eginda lotu, harritu.  
**harresi**= harrizko hormea.  
**aberrimin**= aberriaren alde.



# DATUZANAK

Udea eta udagoiena oparoak izaten dira kultura ekintzetan, Euskal Herrian. Inork hori sinistuko ez baleu, begitu beio hurrengo zerrendeari.

## ABUZTUAN

**Kultur 99**, garagarriaren 23tik abuztuaren 31ra, Nafarroan zehar.

**Nafarroako Jaialdiak**, garagarriaren 26tik abuztuaren 21era, Nafarroan zehar.

**Pastorala**, abuztuaren 1ean eta 8an, Lakarrin.

**Andra Mari Zuriaren Jaiak**, abuztuaren 1etik 9ra, Gasteizen.

**Nazinoarteko Musika Astea**, abuztuaren 2tik 6ra, Bermeon.

**Baionako Jaiak**, abuztuaren 4tik 8ra, Baionan.

**Bertso Aferia**, abuztuaren 12an, Bakion.

**Nazinoarteko Jaialdia**, abuztuaren 6tik 14ra, Lekeition.

**Donostiako Aste Nagusia**, abuztuaren 8tik 16ra, Donostian.

**Euskal Selektzioen Historia**, abuztuaren 10etik 15era, Bakion.

**Bilboko Aste Nagusia**, abuztuaren 14tik 22ra, Bilbon.

**Andra Mari Eguna**, abuztuaren 15ean, Bakion.

**Musika Hamabostaldia**, abuztuaren 16tik irailaren 5era, Donostian.

**San Jon Dolozak**, abuztuaren 28tik 31ra, Bakion.

**Nekazaritza Azokea**, abuztuaren 29an, Bakion.

## IRAILEAN

**Getxoko Folk Jaialdia**, irailaren 1etik 5era, Getxon.

**Maitaldia Dantza Jaialdia**, irailaren 3tik 19ra, Miarritzen.

**Artisautza Azokea**, irailaren 5ean, Bakion.

**Olarizuko Erromeria**, irailaren 8an, Gasteizen.

**Zarautzko Euskal Jaia**, irailaren 9an, Zarautzen.

**Trebiño Eguna**, irailaren 12an, Argantzunen.

**Bermeoko Jaiak**, irailaren 11tik 19ra, Bermeo.

**Herriarteko Bertso Txapelketa**, irailaren 17tik abenduaren 19ra, Gipuzkoan zehar.

**Euskal Dantza Jaialdia**, irailaren 20an, Basaurin.

**Aezkoako Eguna**, irailaren 19an, Orbaran.

**Pastorala**, irailaren 26an, Urdiñarben.

**San Migel Jaia**, irailaren 29an, Zumetzagan.

## URRIAN

**Herri Dantzari**, urriaren 2an, Zuraiden.

**Lapurarren Biltzarra**, urriaren 3an, Ustaritzen.

**Kilometroak**, urriaren 3an, Oreretan.

**Pastorala**, urriaren 3an, Urdiñarben.

**Mutxikoaren Eguna**, urriaren 10ean, Arrangoitzen.

**Antzerki Jaialdia**, urriaren 9tik 16ra, Baionan.

**Nafarroa Oinez**, urriaren 17an, Iruñean.

**Gernikako Urriko Astelehenak**, urriaren zehar, Gernikan.

# barregaiak

## SENARRA

Harek emazteari hauxe dinotso:

- Bart, nik lo egin bitartean, egun-dokoak esaten zeunstazan.
- Nork esan deutsu, baina, ni lotan nengoanik...?

## JONTXU

- Baina seme, -amak dinotso- zer darabilzu hor begiak itxita ispiluaren aurrean?
- Ama, lotan nagoanean zelangoa nazan ikusi gura dot eta.


## UMEEN GAUZAK

- Nire aitak -umeak dino- danak agozabalik izten ohi dauz.
- Zelan izan leiteke hori, bada?
- Haginlaria dalako.

## badaezpadako jakingarriak


	telefono zkia.	fax zkia.
Udaletxea	94 618 40 01	94 618 31 18
Turismo Bulegoa	94 619 33 95	94 619 31 18
Kultur Etxea	94 619 33 69	94 619 31 18
Osakidetza (osagilea)	94 619 42 07	
Udaltzaingoa	929 435 666	94 619 31 18
<b>SOS</b> Larrialdietarako zerbitzuak (SOS Deiak)	112	
Taxia (Carlos Uriarte)	94 619 41 79	
Taxia (Bilbao Ugalde)	94 619 42 50	
Botikea	94 619 44 72	
Autobusa (Bizkaibus)	94 454 10 98/05 44	
Autobusa (Túñez-Sánchez)	94 688 31 71/03 21	





10 ezbardintasun

# ezetz jakin!



**Ikusten dozuzan lau lagunok Andoni, Xabier, Gorka eta Igor dauke izena. Bide bat iparralderantza doa, beste bat hegoalderantza, beste bat sartalderantza eta ganerakoa sortalderantza. Xabier iparraldetik dator. Igor hegoalderantza doa. Inor ez doa sartalderantza. Non dagoz, bada, iparraldea, hegoaldea, sartaldea eta sortaldea?**



# JULEN tailerra

Zerbitzu bizkorra

*Neumatikoak*

*Gas-tutuluak*

*Orioa aldatzea*

*Balazta zapatak*

Beherapen ederrak

Artza Alde, 8  
Tfnoa.: 94 619 48 97  
48130 BAKIO



# GOTZON

## Jatetxea

Benta Alde, 135  
Tfnoak.: 94 619 40 43  
94 619 43 30  
48130 BAKIO

## Itsasargi Kafetxea

Urkizaur Alde, 73  
Tfnoa.: 94 619 47 86  
48130 BAKIO



## *Txomin taberna*




HERRIKO KIROLAREN ALDE  
Goitisol Alde, 34 - Tfnoa.: 94 619 40 70  
48130 BAKIO

## UR-ZABAL TABERNEA

Urkizaur Alde, 73  
Tfnoa.: 94 619 43 05  
48130 BAKIO



## Maria Jesus BIDASOLO MARLOI'ko JANARIDENDA



Benta Alde, 169 - Tfnoa. 94 619 30 06  
(eskukoa) 606 50 68 26 - 48130 BAKIO




## PATXI

HARATEGIA  
URDAITEGIA

Benta Alde, 171  
Tel. eta Faxe: 94 619 40 08  
(eskukoa) 606 45 09 25 - 48130 BAKIO





## atzera begira

Argazkia ataraterakoan neskatiltxuok ogi-bedeinkatu emoten baeben be, ez penstatu dan-danak zeruko oilandatu zirarik, egongo ziran, egon be, euron artean barrabantxuren bat edo batzuk. Argazkia 1922-1923 urteen artekoa ei da. Eskolako argazkia da eta, halan igarri ez arren be, amantal gorria jantzita egozan, bakotxak beraren zenbakitxua sakelearen ganean eukala. Eskolea orduko ELEIZALDE etxea zan, beheengo etxebizitzea, hatan be. Irakaslea GARAIKO Birjinia ARRUZAZABALA zan. Harek euskeraz eta erderaz irakasten eutsen.

Halan bada, goiko errenkadtatik beharantza eta ezkerretik eskoira hasita hurrengoak dozuez :

- 1. errenkadan:** Ageda Muruaga (PERTITXENA) - Isabel Longarai (MARI-TAILER) - Esperantza Zabala (ERROTABARRI) - Ageda Garai (URIBE) - Kandida Barturen (ZAITUA BEAZKOA) - Antonia Erkoreka (AZERETXO) - Emeteria Longarai (MARI-TAILER) - Josefina Uriarte (MAKUENA) - Juanita Zabala (ARTETXE) - Maria Barturen (PANADIENA) - Plazida Larrauri (GOITISOLO).
- 2. errenkadan:** Gregoria Lasa (AGARRE) - Felipa Garai (URIBARRI) - Maria Garai (URIBE) - Juliina Lauzirika (ALARDONE) - Emilia Lauzirika (IBARRA) - Maria Rosario Bilbao (GORRONDONA) - Maria Goiriena (BALANDA) - Abelina Elgezabal (BIDAKURTZIO) - Jesusa Boveda (GOITI) - Lola Uriarte (URKITZAUURRE) - Maria Erauzkin (LANDABASO).
- 3. errenkadan:** Emilia Abio (ZAITUA) - Benita Ortuzar (BEKOETXE) - Benita Barturen (IBILLAURRE) - Nati Ugaldel (URIARTE) - Juliina Zumarraga (TJURRIAGA) - Justina Santana (SUMUSU) - Romana Uriagereka (UGALDE) - Julita Uriarte (MAKUENA) - Josefina Uriarte (ARTZA) - Luisa Uriarte (ARTZA) - Eloisa Uriarte (URKITZAUURRE) - Josefina Bilbao (GORRONDONA) - Bernardina Olaskoaga (BASARTE).
- 4. erreskadan:** Maria Uriagereka (UGALDE) - Teodora Maruri (Lorrea) - Teresa Endemaño (GABANTXO) - Maria Dolores Agirre (GARAITXU) - Raimunda Barturen (PANADIENA) - Teresa Uriarte (MAKUENA) - Teresa Lasa (AGARRE).

(Argazkia: Teresa Lasak itzita)